

## ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Memeen garaian, «statu quo»-a garaile RAMON SOLA > 11

IÑAKI BENGUA, Shot!: «Kooperatibak hil du punka. Lehen amorrua zegoen, gauzak egiteko eta esateko beharra» > 22

2018ko irailaren 22a | XII. urtea • 587. zbk.  
0,50 euro

# GAUR8

mila leiho zabalik  
[www.gaur8.info](http://www.gaur8.info)



## HITANOA, GALDERAK ETA ERRONKAK

HITANOAREN BAITAN NOKAK ETA TOKAK EZ DUTE OSASUN BERA; AZKEN HORI GAILENTZEN ZAIO LEHENARI. HORREN ATZEAN EGON DAITEZKEEN ARRAZOIEZ ETA GENEROAK AUZITAN DAUDEN GARAIOTAN ZER-NOLAKO HIZKUNTZA ERAIKI NAHI (ETA BEHAR) DUGUN HAUSNARTZEN DIHARDUTE ADITUEK. > 12 Juanan RUIZ | FOKU

**Durangotik Kobanera, emakume kurduen iraultza feminista bihotzean** 04

**Korea berriz batzea: ezinezko ametsa, amets betea?** 07

**India erraldoia irudikatzeko estatua erraldoiagoak** 08

**Hitanoa: aberastasuna edo sexismoa?** 12



**«Zergatik ez?», emakume talde oriotar baten bizi bidaia** 16

**Zeren eta noren arabera egia?** 19

**E.lkarrizketa: Iñaki Bengoa** 22

**In fraganti: Ignacio Robles** 28

**Juantxo Egañaren behatzulotik** 31



## SINADURAK:

03 **Maite Ubiria:** Vel d'Hib, Aljeria... eta etorkizuneko damuak

10 **Oier Gorosabel:** Eskurik esku dabilzan pazienteak

11 **Ramon Sola:** Memeen garaian, «statu quo»-a garaile

20 **Gorka Etxebarria:** Urtegiak apurtu

21 **Amaia Nausia Pimoulier:** Gizon guztiak ez dira berdinak

26 **Unai Gaztelumendi**

27 **Nekane Zinkunegi:** Cuenca alboan, iparra galdua

27 **Joxean Agirre:** Zutabe diskurtsiboak

31 **Ana Elozegi:** «Fortnite»





{ datorrena } **Maite Ubiria**

# Vel d'Hib, Aljeria... eta etorkizuneko damuak

Iraganaren gaineko berrazterketa ez da, ez hemen ez inon, ariketa erraza. Atzerako begiradak nekez helzen dira garaiz min zaharrak baretzeko, eta, askotan, bestelako geroa eraikitzeko erreminta bilakatzeko gaitasunik ez dute, maleruski. Atzerako begiradak, gehienetan, selektiboak, partzialak, kapritxosoak, murrizak, hots, inperfektuak dira; «inoiz ez den ahantzi behar» horien bilduma, finean, norbanakoz osaturiko herriek zehazten dutelako, norabide finkoa bihurritu eta kontakizunen zirkuituak osatuz.

Hala eta guztiz ere, atzerako begiradak, beraien bertuteak badituzte. Hartara, bestearengana hurbiltzeko bigarren aukera erakusten dute, denboraren eta hitzaren kudeaketa aproposa eginez gero. Probabilitateak horren alde jokatzeko du, bistan da.

«Inoiz ez da berandu» soil batekin erantzuteko prest dagoen jende kopurua handiagoa baita «ez horrek ez beste ezerk ez du balio» huts batekin gelditzeko prest dagoena baino. Gizartean bizitzera eramaten gaituen bulkada berak aginduko digu, agian, paper trukaketa hipotesi gisa lantzerako, pronostikoaren aurkako hurbilketak bilatzerako. Finean, era batera

edo bestera iraganeko itzala argitzeko beharra xederik gizatiarrenetarikoa baita.

Josette Audin, 87 urteko emazte eta alargunarengana gerturatu da Frantziako presidentea. «Niri dagokit barkamena galdegitea», adierazi berri dio Emmanuel Macronek 1957ko uztailean Frantziako Armadak atxilo hartu, torturatu eta betiko desagerrarazi zuen Maurice Audin matematikari komunista eta Aljeriako independentziaren aldeko ekintzailearen alargunari.

Lehendabizikoz goi mailako agintari frantses batek urrats bat aurrerago egin du, heriotza zehatz baten gaineko ardura hartzeaz gain, hura posible egin zuen sistema legala arbuiatuz. Alegia, legea eskuetan hartuta aplikatu zen errepresioaren gaineko aitormena egin du

Macronek. Kasualitatea edo ez, espainiar Diputatuen Kongresuak Francisco Franco diktadorearen gorpuzkiak Erorien Bailaratik ateratzea baimentzen duen gobernu-dekretua baieztatu zuen egunean heldu zen Josettek inoiz gertatuko ez zela uste zuen keinua.

Aljeria estatu independente bilakatu aurretik zazpi urtez luzatu zen gerran hildako jende kopurua zehaztea ez da posible izan gaur arte. Beste hainbeste gertatu da Francoren matxinadak piztu zuen gatazka odoltsuarekin. Bi gatazka mingarriotan milioi bat pertsonatik gora hil zirela diote hainbat bilanek. Frankismoaren gaineko atzerako begirada zer nekeza den ikusita, horretara mugatuko dut ezohiko alderaketa. Gaur-gaurkoz zaila dirudi eta espainiar agintari baten ahotik «niri dagokit bar-

Gaur-gaurkoz zaila dirudi espainiar goi agintari baten ahotik entzutea «niri dagokit barkamena eskatzea», are zailagoa Estatuak aitortzea sistema legalak berak ahalbidetu zuela tortura aitortzea

kamena eskatzea» entzutea. Are zailagoa diktadurako arduradunak epaitzeko edo, gutxienez, diktadurako auzitegien kondenak bertan behera uzteko pausua eman ez duen Estatuak aitortzea sistema legalak berak posible egin zuela –frankismo ondotik ere– tortura existitzea.

Jacques Chiracek juduen deportazioan frantziar agintariak jokatu zuten papera salatuz, Val d'Hib-eko biktimei zuzenduta. Horren ondotik, Frantziak mende luze batez Aljerian jorratu zuen kolonizazioa bidegabetzat jo zuen François Hollandek. Banaketa ideologikoak gaintzen dituen atzerako begiradari bere ekarpena egin dio oraingoan Macronek. Geroan barkamena berriro eskatzeko beharra ez izateko gaur eta hemen zer egingen duen Errepublikak, hori beste kontu bat da... •

# DURANGOTIK KOBANERA

## Emakume kurduen iraultza feministaren bihotzean

**D**urangoko emakume talde batek aukera izan zuen abuztuaren Kobane eta Rojavara (Kurdistan siriarra) jotzeko. Helburua argia zen: emakumeen iraultza bertatik ezagutzeko. Horretarako bertan sortu dituzten erakunde autonomoetako ordezkariekin bilerak izan eta zenbait proiektu bisitatu zituzten.

Ibilaldi horretako lehen geltokia Kongreya Star izan zen. Emakumeen antolakunde guztiak barruan hartzen dituen erakundeak 2016an aldatu zuen izena. Izendapen kurdua alde batera utzi zuten emakumezko arabiar eta kristauak, besteak beste, erakartzeko. Izan ere, bertako mugimenduak ardura berezia erakusten du emakume arabiarrei dagokienez, euren egoera okerragoa baita egitura tribal eta islamikoen ondorioz.

Kongreya Star 11 lan batzordek osatzen dute. Horien artean nabarmentzekoak dira bai

📁 ATZERRIA / Aitor Aspuru

Abuztuaren hasieran Durangoko emakume talde batek Kobanera jo zuen bertako iraultza feminista ezagutzeko. Berez, Durango eta Kobane senidetu ziren iaz, bi udalerrak bonbardatuak izan baitira. Kobane ospetsu egin zen 2014an, lehen aldiz Estatu Islamikoa garaitu zutelako bertako gizon eta emakume borrokalariak. Orain, hiria ez ezik, gizarte berria ere eraikitzen ari dira.

ekonomikoa –kooperatibak antolatzen ditu emakumeen askitasuna bermatzeko– bai komunitateen defentsa emakumezkoen esku uzten dituen ere. Aipatzekoa da ere bizitza politikoan emakumeen partaidetza sustatzen duena, hori, gainera, nahiz eta kargu guztiak bikoitzak diren, emakume eta gizon bana. Garrantzi handikoa da ere batzorde soziala, non emakumezkoen arazo propioak (dibortzioa, indarkeria, alargunen egoera...) lantzen dituzten.

Egun berean, Durangok diruz lagundutako emakumeen akademia ezagutu zuten bizkaitarrek. Han ideologikoki prestatzen dituzte ikasleak gizarte aske baten alde borrokatzeko. Gazteak eta nagusiak elkartzen dira gela berean, energia eta jakinduria elkarri kutsatzeko.

### EMAKUMEEN LEGEA

Bisitaldiko hitzordurik interesgarrienean durangarrek ideiak trukatu zituzten Kobaneko Saha Halif adiskidetzera-

ko batzordeko kidearekin, Nasrat Jalil Justizia Kontseiluko ordezkariarekin, Sekin Muslim “Sara” emakumeen indarkeriaren kontrako erakundearen kidearekin eta Verma Bakurrekin, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan eta laguntzan diharduen militantarekin. Guztien artean emakumezkoen egoeraren erradiografia osatu eta indarkeriaren aurkako estrategiak partekatu zituzten.

Esaterako, Siriako Iparraldeko Federazioan –kurduak bul-

tzatutako sisteman– emakumeentzako lege bereziak izan arren, adiskidetzeko batzordeak lan egiten du gizonen eta emakumezkoen arteko arazoak euren artean konpon ditzaten; bederatzi hilabete dituzte gizonen euren jarrerak zuzentzeko, eta, beharrezkoa balitz, gehiago, baina tarte horretan ez bada hobekuntzarik lortzen, epaitegitara jotzen dute zigorraren bila. Azken neurria da epaiketara.

Emakumeen legediak 30 artikulatu ditu eta esparru garrantzitsuak lantzen ditu; adingabeen ezkontzak debekatzen ditu, baita familien artean adostutakoak eta poligamia ere, oinordekotzak berdin banatzen ditu emakumezkoen eta gizonen artean, eta ohorezko krimenak eta edozein bortizkeria debekatzen ditu. Horrez gain, ezkontza zibilak legeztatu ditu komunitate ezberdinen artean (kurduak, kristauak, arabiarak, yezidiak...) eta ezkontzeko adina 18 urtera igo du.





Puntu horretan legedia Estatu espainiarrekoa baina zorrotzagoa da. Izan ere, epaitegi espainiarrek 16 urtetan jartzen dute muga. Siriako Erregimenak, ordea, 14 urtetan. Igoera horrekin nahi dute emakumezkoek euren bizitzaren inguruko erabaki askeak hartzea eta etxean ez geratzea gazte izanik.

Beste ezaugarri garrantzitsu bat da dibortzioetan umeen kustodia automatikoki emakumezkoen esku geratzen dela. Hori bai, 15 urte betetzen dituztenean, adingabeek norekin bizi erabaki dezakete.

#### OZTOPOAK ETA ERRONKAK

Kobaneko bataila mugarrizko izan zen zentzu askotan. Miliziano kurduak eragin zuten Estatu Islamikoak izandako lehen porrota, Nazioarteko Koalizioaren bonbardaketen laguntzaz. Hori bai, Kobane ia guztiz birrinduta geratu zen eta egun berriro eraikitzen ari dira, baina ez bakarrik hirigintzaren aldetik. Borrokaren lehen lerroan egon eta gero, emakumeei errespetu handia aitortu die gizarteak.

Hala ere, horrekin eta legezko aurrerakoiak ezarrita ere, Siriako Iparraldeko Federazioan egoera ez da gozoa emakumeentzat. Aipatutako erakunde feministek estatistikak jasotzen dituzte eta batzuk izugarri adierazgarriak dira. Adibidez, Kobanen gizonezkoen %20k poligamia praktikatzen dute. Iraultza baino lehen gertatu ziren horiek guztiak, lotura mota arrunta baitzen.

Gainera, suizidioen kopurua ere larria da. 2017an hamahiru emakume bere buruaz beste egin zuten kantoian eta orain aztertzen ari dira zergatik gertatzen den hori. Gehienbat, familien presioari eta indarke-



riari egozten diote fenomeno.

Horri aurre egiteko jarduera ugari eta askotarikoak bultzatzen dituzte; laguntza biktimei, etxeak eskaini emakume babesgabeen, lana bilatu kooperatibetan edota eskoletan, trebakuntza eskaini... Baita piknikak antolatu emakumeak elkartzeko eta etxeetatik ateratzeko, euren arteko harremana sustatzeko asmoz eta poztasuna eramateko euren bizitzetara.

#### OHOREA ETA NEURRI IRAULTZAILEAK

Datu positiboak jaso dituzte ere bisitan durangarrek. Indarkeria kasuak gero eta gehiago salatzen dituzte emakumezkoek onargarriak ez direlako, baina zenbait tabuk irauten dute. Alde batetik, familiaren ohorea kolokan ez jartzeko, bortxaketak ez dira maiz azalartzen. Dibortzioa ere poliki ari da bidea egiten, emakume askok bortizkeria txikiak jasatea nahiago baitute oraindik bantatzeko aukera hautatu baino,

Alboko orrialdean, Durangoko emakumeek Kongreya Star erakundeko egoitzara egindako bisita. Lerro hauen gainean, komunitateen autodefentsarako taldeetako kideak. Aitor ASPURU

lotsa eta umeen pisua oraindik ere handiak dira-eta.

Ohituraren zama izugarria izanik, berau gainetik kentzeko neurriak abiatu dituzte Rojavako emakumeek. Bortxaketen aurrean babes sozial eta psikologikoa ematen dute, adibidez, biktimek onar dezan bizitza ez dela eteten sexu eraso baten ondorioz.

Halaber, sexu jazarpenak errepikatzen dituzten gizonezkoek bi zigor moten artean erabaki behar dute; sei hilabete espetxealdia edo "Platform" deiturikoa. "Platform" delakoan hamar edo hamabost emakumek zirikatzeko eta iraintzen dute publikoki erasotzailea egindako agatik. Ondorioz, hiri osoak daki zer egin duen gizonezko horrek. Itzultzaileak aitortu bezala, hainbat gizonek amesgaiztoak dituzte horrekin.

#### BORROKALARI BATEN LEKUKOTZA

Arratsalde oso bat eman zuen Sherin Kobanek durangarrek. Emakume kurdu gazteak,

23 urte eskasekoa, hainbat bizitzako esperientzia zuen bere baitan. 18 urte bete bezain laster, Al Qaedaren aurka borrokatzeko jo zuen frontera. Batailak baretu zirenean ikasteari ekin zion berriro, baina handik eta hilabete gutxira, Estatu Islamikoak Kobaneri eraso egin zion.

Hasiera batean, Sherin jihadistek zauritutako zibilekin egon zen, Turkian jarritako kanpaina ospitaletan, hain zuzen. Ordea, gerra hirira heldu zenean, muga berriro zeharkatu eta fusil metrailadorea hartu zuen. «Lagun asko galdu nituen Kobanen eta bataila lazgarrietan egon nintzen. Zailtasunak handiak ziren, ez genuen ia janaririk ezta urik ere, baina apur hori partekatzen genuen».

Egun beldurgarri horiei buruz galdetuta, erantzun zuen bazekitela indarren oreka ez zegoela bere alde eta psikologiaren garrantzia nabarmendu zuen: «Koalizioa bonbardatzen hasi baino lehen 100 mi-

liziano inguru besterik ez ginen geratzen hirian. Guztiok onartu genuen hilko ginela, baina gure hautua izan zen, aukera izan baikenuen ihes egiteko eta ez genuen egin».

Kobane askatu eta gero, inguruko herrietatik ere bota zuten Estatu Islamikoa. Herrixka arabiar batean bertakoek bat egin zuten jihadistekin eta segada prestatu zieten. Hamabi ziren bere taldean eta zortzi hil egin ziren borrokan. Berak begia galdu zuen eztanda baten ondorioz. «Batzuek galdetu zidaten zergatik ez nintzen geratu nire hirian, baina nik ezin nuen jasan Estatu Islamikoa, mundu osoa askatu behar nuen, ez bakarrik Kobane», adierazi zuen.

Garrantzi berezirik eman gabe, bere zauriei buruz mintzatu zen: «Lau ebakuntzaren ostean, medikuak erakutsi zidan ispilu aurrean begia falta zitzaidala. Harriduraz ikusi zuen irribarrea nire aurpegian. Galdetu zidan zergatik. Nik erantzun nion guztiok utzi genuela oroitzapenen bat Kobanen, nire kasuan, begia. Beirazko kristala jarri zidaten eta orain Kobaneko administrazioan lan egiten dut».

#### KOMUNA INTERNAZIONALISTA

Deriken dauden 40 lagun ingururekin bildu ziren Durangokoak Komuna Internazionalistan. Ameriketako Estatu Batuetatik, Alemaniatik, Estatu frantziarretik... hainbat boluntario batu dira han lan zibilean aritzeko. Jarduera ez da samurra eta goizetik gauera arte irauten du.

Erro euskaldunak dituen kataluniar batekin solastatu ziren emakumeak eta baita harritu ere. Gazteak Estatu Islamikoko emakume eta umeekin lan egiten du lehen



medikuntzako zerbitzua eskaintzen. Guztira 2.000 pertsona baino gehiago daude kanpamentu horretan: «Dena oso prekarioa da, baina kurduak ezin zaie ezer aurpegira-

Goian, emakumeen akademia. Behean, durangarrak Kobaneko udaletxean. Aitor ASPURU

**Suizidioen kopurua ere larria da. 2017an hamahiru emakumek bere buruaz beste egin zuten kantoian. Gehienbat, familien presioari eta indarkeriari egozten diote fenomenoak**

**Emakumeen legediak 30 artikulua ditu; adingabeen ezkontzak debekatzen ditu, baita familien artean adostutakoak, poligamia eta ohorezko krimenak ere**

arazo guztiek eztanda ez egitea (blokeoa, gerraren ondorioak...) eta proiektuak aurrera egitea.

#### EMAKUMEEN HERRIXKA

Bidaiaren azkenengo geltokien artean egon zen Jinwar; emakumezkoentzako herrixka, eurak diseinatu eta eraikia, nahiz eta gizonezko boluntarioak ere egon lan egiteko.

Herrixka sortu dute erregimenaren lurralde hutsetan irizpide ekologikoak baliatuta. Dagoeneko tamaina ezberdinetako 30 etxe egin dituzte askotariko beharrak dituzten emakumeentzat, batzuk umeekin eta beste batzuk bakarrik.

Sozialismoa eta feminismoa dira Jinwarren bestelako oinarriak: etxeak komunalak dira eta kutxa kolektiboarekin egiten da dena. Oraindik guztiz bukatu ez bada ere, hiruzpalau emakume joan dira jada hara bizitzera. Asmoa da dibortziatu diren emakumeei ongi etorria egitea, baita arazoak dituztenei edo senarrik gabe bizi nahi dutenei ere, patriarkatutik at.

Guztira, 60 etxebizitza eraikiko dituzte, bi ikastetxe, akademia bat eta osasun zentro naturala. Inguruko herriekin harremanetan daude eta zenbait eskakizun jaso dituzte kanpoko umeak euren eskolatan hartzeko. Proiektuaren osagairik bitxia igerilekua da: «Arabiarrek ez dute emakumeentzako igerilekuak eta hemen bat egongo da».

Edonola ere, egitasmo txundigarria izan arren, osasun zentroko bonbardaketan eta erasoen kontrako gotorlekuak argi asko gogoratzen du kurduen utopiak lurralde zingiratsuetan duela zutabe, eta oraindik ere internazionalismoaren laguntza beharko dutela.

tu, ahal duten guztia egiten dute. Gehienak atzeritarak dira eta jatorrizko herrialdeek ez dituzte jaso nahi».

Durangar batek interesa adierazi zuen Estatu Islamikoko emakumeak bisitatzeko. Arduradun alemaniarrek kontu handiz azaldu behar izan zion gerra gatibuak zirela: «Emakume horiek ez dira biktimak, Estatu Islamikoko kideak baizik».

Elkarrizketa xume horrek, ikusitako errefuxiatu kanpamentu gehiagorekin batera, miresmen gehiago sortu zuen bisitarietan, harritzekoa baita Rojavan dauden muturreko





ED JONES | AFP

## IKUSMIRA

# KOREA BERRIZ BATZEA: EZINEZKO AMETSA, AMETS BETEA?

Ipar haizea eta hego haizea, distentsio haizeak datoz Koreatik. Eta haizeok ametsak ernaltzen dituzte; harresiak erortzen dira, familiak berriz batu eta armadak desegin, bandera bakar baten pean anai-arreba guztiak desfilatuko duten desiren mozkorraldia sortuz. Hego aberats hiperkonektatuak eta Ipar pobre hiperarma-

tuak, biek egin zioten elkarri gerra, gerra zibil odoltsua, teknikoki amaitu ez den gerra. Bakerik gabe, baina, nola berriro batu? Gaitz, oso gaitz. Are zailago bietako baten kolapsoa bilatuz, batek bestea absorbatuz, edo korearren bihotzak zafrazten ez dituzten bide artifizialen bitartez. Etsaitasunak eta tentsioak jaitsi egin behar dira. Munduko potentziekiko menpekotasun kateak hautsi. Zailtasunak zailtasun eta mesfidantzak mesfidantza, beren nazio milenaristaren batasuna dute amets korearrek. Amets erromantikoa, kontraesanek beterikoa dela? Eta? Ba al dago gauza errealistagorik ametsaren ildo jarraitzea baino? Mikel Zubimendi Berastegi



# INDIAN DENA DA ERRALDOIA

Askatasunaren Estatuaren bikoitzak izango diren bi heroi hinduistaren irudiak eraikitzen ari dira

 POLITIKA / Premal Balan

Indiako bazter ezku batean, armada baten itxura duen langile taldea munduko estatuarik handiena eraikitzen ari da, azpikontinentearen independentzia bultzatu zuen heroi baten omenez. Egitasmo izugarri sinbolikoa da Indiako politikan. Gainera, ez da bakarra: Gobernu hinduistak beste estatua erraldoi bat eraikitzeko asmoa ere badu.

**A**bertzaletasuna eta handikeria uztartu dituen Gobernu hinduistak munduko estatua handienak eraiki nahi ditu Indian. Lehena eraikitzen ari dira dagoeneko Indiako mendebaldeko Gujarat estatuan, Narendra Modi lehen ministroaren jaioterrian. Bigarrena 2021erako amaitzea espero dute, eta errege-gerrillari hindu bat irudikatuko du Mumbaiko badian. Bata zein bestea New Yorkeko Askatasunaren Estatua ezagu-

naren bikoitzak izango dira tamainaz. Biak eraikitzeko aurrekontua 800 milioi eurotik gorakoa izango da.

Estatuon tamaina izugarria eta irudikatzen dituzten aitzindari hinduisten hautaketa ez dira inolaz ere kasualitatearen ondorio, ez behintzat datorren urteko legebiltzarrerako hauteskunde kanpaina hastear den honetan. 2014an boterea eskuratu zuen Bharatiya Janata Party (BJP) gobernuan den alderdiak, «bereak bailiran hartu ditu aspalditik ikono hindustak», azaldu du In-

dian Council of Social Science Research erakunde publikoko Sudha Pai adituak.

Horiek horrela, Gujaraten, amaitzearekin jada Batasunaren Estatua eraikitzeko lanak, independentziaren aldeko borrokan aitzindari izan zen Vallabhbhai Patel buruzagiaren omenez. Sardar Sarovar izeneko presaren gainean milaka langile ari dira lanean 182 metroko altuera izango duen irudia brontzez hornitzeko. Izan ere, datorren urriaren 31n dago aurreikusita inaugurazio ekitaldia, hau da, kolonizazio-



aren osteko India askearen lehendabiziko lehen ministroa izan zen gizonaren jaiotze dataren urteurrenean.




## «INDIAKO BURDINAZKO GIZONA»

Abertzale hinduistek Patel aitzindaritzat dute eta bere irudia goraiatzat dute. «Indiako burdinazko gizona» bezala da ezaguna, batez ere hainbat printzek kontrolpean zituzten estatuak askatutako herrialdeari atxikitzea gogotik eta gupidarik gabe bultzatu zuelako. Hinduisten ustez, historiak bigarrena ahaztu du Patel, Jawaharlal Nehruren mesedetan. Nehru independentziaren osteko lehendabiziko lehen ministroa izan zen, egun oposizioan den Indiako Kongresu Nazionalaren eskutik.

«Patel erabiltzen ari dira Nehruren ondarea gutxiesteko. BJPk egun indarrean den





historiaren irakurketa aldarazi eta britainiar kolonialismoaren aurkako borrokan eskuina ezkerre bezain garrantzitsua izan zela sinestarazi nahi dute», gaineratu du Sudha Paik. «Patel kontserbadorea zen giza auzietan eta ekonomiaren arloan enpresen aldekoa; beraz, bere iritziak egungo BJPtik oso gertu daude», bat dator Ghanshyam Shah, New Delhi-ko Jawaharlal Nehru Unibertsitateko irakasle ohia. 2013an, Modi lehen ministroak berak honakoa zioen: «Indiar orok gaitzesten du Patel lehen ministro bihurtu ez izana».

Indiako historian Patelek izandako papera aldarrikatzean, eskuin hinduista Nehru eta bere oinordekoen legatua kolokan jartzen saiatzen ari da, hainbat hamarkadaz Indiako norabidea gidatu duen familiarrena hain zuzen. «Modik

sari erabili izan du Patelen ondarea hauteskunde kanpaitan eta ziur nago Batasunaren Estatua erabiliko duela datorrenean. Hautesleengan eragin handia izango duen beldur naiz gainera», azaldu du Ghanshyam Shah maisuak.

#### **MARATHIEN ERREGE GERLARIA**

2016an, Modi lehen ministroak ez zuen zalantzarik egin Mumbaiko badian Chhatrapa-

ti Shivaji marathien erregearen memorialaren lehen harria jartzeko. Itsasertzean bertan, harrizko irlatxo baten gainean, eraikitzen ari dira Patel berarena baino 30 metro altuagoa izan den estatua, megalopolisaren aurre-aurrean.

XVII. mendean Mogol Inperio musulmanaren aurka borrokatu izanagatik ezaguna, Chhatrapati Shivaji gerra jauntxo hinduista heroia da Maha-

**Patel hinduista kontserbadorea eta ekonomian liberala independentziaren alde borrokatu zen. Shivaji marathien errege gerlariak, berriz, Mogol Inperio musulmanaren aurka egin zuen**

**BJP alderdiak egun indarrean den historiaren irakurketa moldatu nahi du, hinduismoak Indiako historian eta britainiarren aurkako borrokan izandako papera aldarrikatuz**

Aurreko orrialdean, giza piramide bat Mumbaiko jaialdi hinduista batean. Lerroon gainean, Vallabhbhai Patel buruzagi hinduistaren omenezko estatua erraldoia eraikitzen lanak.

AFP

rashtran, Mumbai kapitala duen estatua. Bertako aireportua, tren geltoki nagusia eta parke erraldoi bat Shivaji izenarekin bataiatu dituzte.

Lanak hasiak dira dagoeneko Mumbaiko badian itsasoari lurra jateko. Memorialak museo, anfiteatro, zinema eta turistentzat egoitzak hartu behar harko lituzke, besteak beste, proiektu erraldoiaren arabera. Ingurugiroaren defendatzaileek eta arrantzaleek proiektua gogor salatu dute, lanek ekosisteman eragina izan dezaketelako. Hori bai, jada ordaindu behar izan den faktura izugarria (36.000 milioi errupia, 440 milioi euro) eta lanak bukatzeko epea (hiru urte) kontuan hartuta, Indiako hiriburu ekonomikoan bizi diren askok zalantzan jarri dute estatua egunen baten amaituko ote den ere. Handikeriaren patua.



**Oier Gorosabel - @Txikillana**  
Fisioterapeuta

## Eskurik esku dabilzan pazienteak

**G**aur paziente biren kasuak azalduko dizki-  
zuet, aurreko hilabeteetan kontatu ditudan  
gaiekin lotuta; izan ere, hemengo artikulua  
monografikoak badira ere, bizitza errealean  
gauzak ez dira hain argiak izaten. Nahi due-  
nak, aurreko artikuluekin loturak aurkituz  
denbora pasa dezake!

Marixe, 1949an jaiotako etxeoandrea, beste fisioterapia zentroetan ibilia zen gurera etorri aurretik. Harrezkero (badira hamabi urte) askotan etorri da guregana, besoko artikulazioetako eta muskuluetako arazo txikiengatik; pozik gainera, fisioterapia saio gutxirekin hiruzpalau urtetarako ondo gelditzen zelako. Horrela etorri zen duela hilabete batzuk ere: “beti bezalako” sorbalda-besoko mina zuenez, segituan kentzeko esperantzarekin. Baina esploratu nuenean zerbait desberdina zegoen; ezer larririk ez, bai ostera gure “betiko” protokolo horren orde lepoa tratatzea eskatzen zuena. Baina Marixek ez zuen lepoa inondik inora ukitzerik nahi, beste fisioterapeuta batek behin lepoa tratatu zionean, gero minez izan zelako. Besoa bakarrik tratatu nion beraz, baina... saio gutxi batzuen buruan, mina ez zen hobetu. Pazientea protesta-ka etorri zitzaidan, ez omen nintzelako “beti bezala” tratatzen ari (“lehen halako eta halako maniobrak egiten zenizkidaten” deskribatzen zidan, zehatz-mehatz). Eta horrela zen, bai: batetik, osagileak ez gara garbigailuak -txanpona sartu, eta beti programa bera egiten dugunak-; pazientea nola datorren, tratamendua horrela egokitzen dugu. Eta bestetik, ezinbestean tratatu behar dena -kasu hone-tan, lepoa- ez tratatzeko baldintzak ez du inolaz ere laguntzen. Gainera, teknika batekin arazoa egon denean (erantzun mingarria), beste tratamendu asko proba daitezke. Azalpenok alferrikakoak izan ziren: han

joan zen Marixe bere ustezko diagnostikoarekin, behar omen zuen tratamendua egingo zion beste fisioterapeuta baten bila. Ez da erraz sendatuko, horregatik!

Peru, 1969an jaiotako kirolari profesionala. Dena probatzea gustatzen zaio, eta ahalmena duenez, urtean zehar dirutza gastatzen du terapeuta desberdinekin. Gurera ere sarri etortzen da, urtean bizpahiru bider; duela gutxi adibidez, “masajeak hartzen” egon arren, pasatzen ez zitzaion ziatika itxurako batekin. Ikusketan, ez nion gauza konplikaturik ikusi: muskulu batzuk luzatu beharra, beste batzuk sendotu, artikulazio batzuk malgutu... Saio batzuetan hobetuko zen kasu tipikoa, batez ere etxean aholku batzuk jarraituz gero. Baina Peru burugogorra da: berak beti bezala entrenatzen jarraitu nahi du (gaizki eginiko gauzak barne), eta, halere, sendatu; saio bakarrean gainera. Bistan denez, mina ez zitzaion kendu eta handik astebetara idatzi zidan, ea “ziatikan espezializatutako beste fisioterapeutaren bat” ezagutzen ote nuen (!!!). Nire onetik ez ateratzeko ahalginetan, azaldu nion berak zuena edozein fisioterapeutak

tratatu ziola ongi; baina emaitzak lortzeko hark proposatutako tratamendua jarraitu behar zuela, hasi eta buka, eta bere aholkuei ere jaramon egin. Ez dut esperantza handirik Perurekin: mirari baten bila jarraituko du; entzun nahi duena agintzen dioten iruzurgileen esku eroriko da; eta azkenean kirola utzi beharko du.

**Hor dituzue Peru eta Marixe, eskurik esku dabilzan pazienteen prototipoak.** Bisitatu duten terapeuta bakoitzeko, historia klinikoan ikurrin hori bat ezarri behar diegu, bere pronostikoen kaltetan. Zein da ondorioa? Zuen osagilearengan konfiantza izan behar duzuela: hobetu ahal izateko lehen pausua da. •



Oso garrantzitsua da osagilearengan konfiantza izatea. GAUR8



{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

# Memeeen garaian, «statu quo»-a garaile

**K**azetaritza politikoa egin ohi dugunon jardunerako nahasmen handiko garaiak dira, teknologia berrien eskutik orain arte erabiltzen genituen jokamoldeak, irizpideak, lehentasunak... guztiz kolokan diraketa. Oso labur esateagatik, gaurdaino politikoa eta kazetaria ziren mezu-emaile nagusi eta ia bakarrak, baina, orain, aldiz irakurle-entzule-ikuslearen arreta maila edota iritzia bera denbora errealean jakin daitezke. Itxuraz osasuntsuagoa, demokratikagoa, hobeagoa, dirudi *feedback* horrek, baina sarritan eragin kaltegarria duela begi bistakoa da. Alderdi eta erakunde ugariaren ildoan unean uneko inkestek markatzen duten bezala, hedabide askoren egunerokoan nagusi da klik, *like* eta *retweet*-ak pilatzeko obsesioa. Biak batzen direnean, arazoa ez da gehitzen, biderkatzen baizik, ekinbide politiko eta informatibo honek aldi berean eztabaida publikoa desitxuratu, hustu, garrantziz gutxitu, pobretu, egiten duen neurrian. Badakit, ez naiz ezer deskubritzen ari. Ez dakit, ordea, konponbiderik duen...

Azkenaldion gure lanbideaz bi esaera borobil entzun ditut han-hemenka, zer pentsatu ematen dutenak. Lehena, publikoaren interesa zeureganatzeko hiru bide baino ez dituzula: dibertitzea (hau batez ere, gero eta nabarmenago), hunkitzea edota pentsatzen duena berrestea (arrazoia ematea, alegia). Bigarrena, entzule azkarrenek (GARAn “irakurle kriteriodunak” deitu izan ohi ditugunak) ideiak dituztela arretagai nagusi; arruntagoek, gertaerak, ekimenak, albisteak; eta, azkenik, maila apalagokoek-edo, bereziki pertsonengan dutela interesa. Bi adierazpen zorrotzok nork osatu dituen ez dakit, baina ez diet arrazoia kenduko.

Adibide garbi bat emateagatik, Pedro Sanchez espainiar presidentearen unibertsitate tesiari buruzko 24

orduko eztanda informatiboak argi erakusten du publiko zabalaren arreta pizteko bi tekla horiek sakatu behar direla: albistea dibertigarri izatea –ia anekdota bat, ahal bada meme asko egiteko modukoa– eta maila pertsonalean kokatzea –kuxkuxeroaren tradizio okerreanean–, ez ideien ez eta gertaeren esparruan ere. Gertuagoko adibidea bilatuz gero, antzekotzat har daiteke Iruñeko Udaleko Maite Esporin PSNko zinegotziak EH Bilduko alkate Joseba Asironi eginiko akusazio lotsagarri eta faltsuak hartutako oihartzuna. Zurrumbilo horretan iparrorratza galtzen bukatzea ez da zaila: Jose Maria Aznarrek asteartean Diputatuen Kongresuan izaniko agerraldiak eragin zuen zirku antzuak ez zuen bera bakarrik protagonista izan, baina, albistearen biralitetea alde batera utzita, politikoki inolako eraginik ez zuen utzi.

Gizartea aldatu nahi badu, ezkerak ideiei buruz aritzeko beharra du. Baina nola jarri arreta, esaterako, Eusko Ikaskuntzak aurkeztar duen diagnosi garrantzitsuan?

Inertzia negargarri honek albiste txarra dakarkio eta trantze zaila planteatzen dio ezkerari. Batetik, eskandalu ugari guztiz isildurik uzten dituelako, agendan tokiarik gabe; esaterako, Mariano Rajoyren Gobernuak osasun eskubidea kendu izanak heriotzara eraman dituen etorkinen kopuruari buruzko ikerketa ikaragarria oharkabean pasatu zen uda aurretik, dudarik gabe ez zelako sarea memez betetzeko modukoa. Bestetik, ezkerrentzat ideiei buruz era kolektiboan eta sakontasunez aritzea ezinbestekoa delako gizarte eredu errortik aldatu nahi bada; Eusko Ikaskuntzak aurkeztar duen Euskal Herriaren erronkei buruzko diagnosis zeharo garrantzitsua eta beharrezkoa da, baina nola jarri arreta hain kontu “astunaren” gainean? •

# HITANOA, ATETXO HANDIA

Aberastasuna den edo zantzu sexistak dituen ikertzaileen ahotan eztabaidagai

📁 EUSKARA / Oihane Larretxea de la Granja

Hitanoaren baitan tokak eta nokak duten espazioaren eta jokatzeko duten paperaz luze mintzatu dira mahaiaren bueltan hainbat ikerlari udako ikastaroetan Donostian. Binarismo zorrotza zalantzan jartzen den garaiotan, nola jokatu hizkera honen aurrean? Ba al dago zer moldatu? Galderak ez dira makalak, ezta erronkak ere.

**R**obin Lakoff linguista estatubatuarrek ezarri zituen, 1975ean, soziolinguistika feministaren oinarriak. Bere hipotesi nagusien arabera, emakumezkoek eta gizonezkoek hitz egiteko modu ezberdinak dituzte. «Genero sistemaren» baitan kokatzen zuen fenomeno, eta gizartearen eta sozializazioaren pisua aipatzen zituen. Horrela aritzera daude bideratuta sexu bat zein bestea.

«Hizkuntza txanpon bat da», dio Euskal Herriko Unibertsitatean Gizarte Antropologia irakaslea den Jone Miren Hernandezek. «Hizkuntza tresna bezala erabil daiteke, sortzailea da. Gizakiok eragiteko duguna da, eta botere performatzailea du». Adibide bat jarri du mahai gainean: «Mutilek ez dute negarrik egiten». Horrek efektu batzuk ditu»,

**Hitanoaren baitan, tokak eta nokak ez dute osasun bera; azken horren ezagutza eza nagusi da. «Gizarte justu baten ikuspegitik, nolako hitanoa beharko genuke?», planteatzen dute**


**Hitanoak etengabe gogoratzen dizu neska edo mutila zaren, nahiz gaiarekin zerikusirik ez izan. Beren burua kategoria horietatik at sentitzen dutenez oroitzen da Jaime Altuna**

baieztatu du. Baina hizkuntzak, aldi berean, gizarte elementu ezberdinak ditu txertatuta, tartean genero sistema. «Ez dago ondo ikusia neskek biraoak erabiltzea», aipatu du eredu gisa. Bere ustez, «hitanoak oso ondo biltzen ditu txanponaren bi aldeak».

Egin duen ikerketa zabalean, hizkuntzari dagokionez behintzat, euskal emakumeak nagusiki bitartekari gisa agertu direla dio Hernandezek, alegia, transmisio lanetan. «Inoiz ez sortzaile edo ordezkari gisa». «Naturalizat» jotzen da, gainera, emakumezkoen gaitasuna hizkuntzak ikasteko, umetan hizketan hasteko, hizkuntzen irakaskuntzarako... «Ama-hizkuntza» vs «plaza gizona» kontzeptuak jartzen ditu aurrez aurre. Edozein kasutan, eta egile batzuk sostengatzen dutena berreskuratuz, azken urteotan euskararen «feminizazioa» nabarmena gertatu dela dio, datuek behintzat baieztapen hori berresten dutela uste du.

Jaime Altuna antropologoarekin batera, besteak beste, hartu du parte Hernandezek Euskal Herriko Unibertsitateak Miramar jauregian «Hitanoa eta generoa: aberastasuna ala sexismoa?» izenburupean antolatutako duen udako ikastaroan. Altunak ere sostengatzen du

Ezker-eskuin, Jone Miren Hernandez, Jaime Altuna, Andoni Egaña, Iñigo Beitia eta Elixabet Pagola, Donostiako Miramar jauregian.  
Gorka RUBIO | FOKU



**IÑIGO BEITIA**

«Hitanoa hiztun berriak badira: laguna da erreferentzia, elkarri entzunez ikasten dute»

hizkuntza eta hitza «gizarte egituraren isla» direla, baina baita gizartearen eragile ere. Hitanoa, hizkuntzaren parte den aldetik, beste hainbeste. Galdera edo baieztapena?

**NOLAKO HITANOA ERAIKI**

«Hitanoaren barruan, tokak eta nokak duten osasuna ez da bera», dio Altunak. Adibidez, gazteen artean «nokaren ezagutza eza» orokorra dela azaldu du. Hori baino lehenago, ordea, galdera bat jarri du mahaiaren gainean: «Nola definitu nahi dugu hitanoaren erabilera?». Hau da, «gizarte justu baten ikuspegitik, nolako hitanoa beharko genuke?», galdegin du aretoan.

«Kidetasun» alderdia aipatu du lehenik. Bere erabilerak «adiskidetasuna» adierazten duen aldetik, ahozko hizkuntza ez formala zabaltzeko bide egokia izan daiteke; aitzitik, hainbat ikertzailek baieztatzen dutenez, «kidetasun» hori bereriki mutilen artean ematen da. «Bi aukera ditugu –dio Altunak Lakoffek berak proposatutakoa oroituz–: mutilen arteko lotura beharra murriztu edo emakumeen artekoa, oro har, pertsona guztien arteko lotura, sustatu».

Botere alderdia, bestetik, errespetuarekin lotu badaiteke ere, «estatusa» markatzea-








**JONE MIREN HERNANDEZ**  
«Hizkuntza txanpon bat da. Tresna bezala erabil daiteke eta gizarte elementuak ditu txertatuta»



**ANDONI EGAÑA**  
«Bertsotan rolak esajeratzeko balio izan dute bi kodeek, eta sexistak izan gara, onartzen dut»



**ELIXABET PAGOLA**  
«Gaztelera 'e' sartzan ari da, 'nosotres' esateko, kasu. Hitanoan horri bide motza ikusten diot»



**JAIME ALTUNA**  
«Generoak desagertzea zientzia fikzioa da, baina binarismo hegemonikoa arindu daiteke»

rekin lotzen da. «Modu justu bat eratzeko» arau horiek mantendu edo aldatu beharko liratekeen hausnartzea planteatzen du.

Eta azkenik binarismo zorrotza. «Nola jokatu hain banaketa binarioa performatzen duen hizkeraren aurrean?». Kasu horretan Judith Butler filosofoa ekartzen du gogora. «Kontua ez da genero kategoriak guztiz desagerraraztea, hori zientzia-fikzioa da, baizik eta binarismo normatibo hegemonikoa arintzea». Hala, moldatu al daiteke hitanoa?

«Binarismo zorrotza zalan-tzan jartzen ari den garaiotan, nola jokatu hizkera honen aurrean?», galdegiten du Altunak. Bere ustez, hitanoak «etengabe» gogorarazten dizu neska edo mutila zaren, «nahiz eta hitz egiten ari zaren gaiarekin zerikusirik ez izan. Gaztelera etengabe 'tú, chica', 'tú, chico' ariko bagina bezala». Gainera, beren burua «kategoria horietan sartzen ez duten pertsonak» gogoratzen ditu. Haien sufrimendua ere aipatzen du.

#### EREMU PUBLIKOA ETA PRIBATUA

Iñigo Beitia Zabalak hika eta gazteak gai hartuta egin zuen gradu amaierako lana. Eskoriatzarrak, antropologian graduatua, jaioterriko gazteek hitanoarekin duten harremana ikertu zuen. Miramar jauregian ere izan da bere ahotsa entzuteko parada.

Altunaren baieztapen bera egiten du: gazteen artean no-karen ezagutza ahuldurik dago. «Beharbada -dio- beren bizitzetan tratamendu honekiko figura gutxi izan dituztelako». Gainera, etxeko transmisioan, jendarteetan, hedabideetan... oso bisibilitate txikia izan du. «Espazio publikoan erreferentiek ez egoteak ere eragina izan du».





Bere hausnarketak egin ditu eta, zera uste du: kalean noka erabiltzen duten emakumeek beren zirkulu pribatuetara mugatu dutela; kafean, tertulian, meza osteko berriketan... «Beraz, tokak gizonen bitartez espazio publikoa eta kaleak hartu dituen bitartean, txikiteoan adibidez, noka espazio pribatuan gelditu da. Eta kaleko galerari etxeko galera gehitu behar zaio. Hori, aldi berean, hikaren galera orokorrean txertatuz».

Beste hipotesi bat du Beitiak: gazteen artean toka neutroa bezala erabiltzen dute hala hartzen dutelako? «Mutl askok neskekin hitanoa gutxi erabiltzen badute ere, erabiltzen duten apurra toka da. Ez jakintasunagatik edo toka neutro gisa ikusteagatik. Eta esango nuke neska batzuek hika erabili behar izanez gero, tokara joko luketela. Ez lukete txarto hartuko».

Eta beste galdera bat mahai gainean. «Nokaren bisibilitate ezak tokaren neutraltasuna bultzatu al du?», bota du. Kontatu duenez, ikerketa egiten ari zela, gazte batek esan zion ez zuela zeinekin noka egin. «Eta gazte horrek kuadrillan neskak ditu, eta arreba ere badu. Berez, irizpideak eta baldintza objektiboak baditu. Beharbada nesken eta mutilen arteko harremanek ere beren eragina izango dute erabilean...».

Eskoriatzarrak erreferente izan du ikerketa lanetan Xabier Alberdi EHUko irakaslea. Berak hiru hutsune aipatzen ditu nokaren galeran: eremu-zkoa, batzuetan erabiltzen dute emakumeek, besteetan ez; adinezkoa, gazteek erabili ez baina helduek bai; eta sexuzkoa, emakumeek beren artean bai baino gizonekin ez. «Horri, gainera, euskalki bakoitzean dauden ohiturak gehitu behar dira», dio.

Beste hipotesi bat gehitzen du: emakumeen artean hiztun solaskidearekin kidesuna edukitzea ez da nahikoa hitanoa erabiltzeko. «Adiskide izatea ez da derrigorrezko baldintza hikan aritzeko, baina gutxiengo kidesuna behar da», gogoratu du Beitiak. «Badirudi -jarraitu du- gutxiengo kidesun hori mutilek askoz azkarrago hartzen dutela. Parekoa sexu berekoa bada, gutxiengo kidesuna hartzen dute, eta, emakumeek, aldiz, hitano solaskidea hautatzeko, antza baldintza gehiago jartzen dizkiote». Alberdik dio «kontuzago» hautatzen dutela hitano solaskidea.

Arauk urratzen, eta botere harremana hausten apurka. Gazteek gaur egun ondo ikusten dute inoiz guraso badira, seme-alabei hitanoz egitea. Erronka, berresten dutenez, nolako hitanoa nahi-behar dugun galdera konplexuari egoki erantzutea da.

**Tokak gizonen bitartez espazio publikoa eta kaleak hartu dituen bitartean, noka espazio pribatuan gelditu da. Hala, kaleko galerari etxeko galera gehitzen zaio nokari**

**Emakumeen artean hiztun solaskidearekin kidesuna edukitzea ez da nahikoa hitanoa erabiltzeko. Gutxiengo kidesun hori mutilek askoz azkarrago hartzen dute antza**

## OHOLTZATIK KANPO BAKARRIK... EDO BAITA GAINEAN ERE?

Bertsolaritzak eta, horrenbestez oholtzak, bere kode propioak ditu. Arauk, metrikak eta errimak. Horretan kabitarik ba al du hitanoak? Galdera horri erantzuten saiatu ziren Andoni Egaña eta Elixabet Pagola. Iritziak iritzi, eta aukerak aukera, erronka litzatekeela ez dute ezkututzen, baina, jakina, bere zailtasunak, eta ez edonolakoak, izango lituzkeela ere

aitortzen dute. Aitzitik, sormenaren zirikatzaile ona izan daitekeela bota zuen Egaña. «Eta hori inoiz ez da gauza txarra».

Gauza bitxia da oholtzak irudikatzen duen itsasertza. Handik kanpo «gure artean hika erabili ohi dugu»; bertan zergatik ez? «Gutxi entzuten da hika, eta ez luke hala izan beharko. Bertsogintza jardun herrikoia da, temako jarduna da, eta gainera





bertsolari gehienok elkarri hikaz hitz egiten diogu oholtzaz behera».

Oholtza gainean egiten dutenaren «%1-%2 bakarrik» egiten dute hikaz, aipatu duenez. «Eta bada kontraesana». Baina Egañak hainbat arrazoi maneiatzen ditu, bereziki mikrofonoak berak duen pisuagatik. «Publikoari begira egiten dugu bertsotan, haiek egiten dute galbahe lana eta zuka ateratzen da. Zuen bitartez esaten dizkiot sekulakoak, goxoak zein ozpinak, Eliri –bota du adibide gisa-. Eta uste dut horregatik dela». Mikrofonoak, bereziki lurrean hankaz eusten denak, oholtzara eusten ditu bertsolariak, eta parez pare begiratzera derrigortzen ditu,

kideari beharrean. Gauza bitxia gertatzen da, baina, dio Egañak, bertsolariak bere buruari kantuan egiten dionean. Orduan bai baliatzen du hika. Lazkao Txikik ispiluaren aurrean bota zuen bertsoa gogora ekarri du. «Aizak nik hiri bota behar dit bertso koxkor bat edo bi,/ behingoan jarri geranez gero, biok aurpegiz aurpegi/ neri begira hortik daduzkat alperrikako bi begi,/ hik ez nauk noski ni ikusiko, baina nik ikusten haut hi. (...)».

1980ko eta 1982ko bertsolaritza txapelketetan Xabier Amurizak hikaz aritzeko ahalegina egin zuela gogoratu du Egañak, eta saio batean Amuriza eta Lazkano horrela aritu

zirela, gaia hikaz jarri zitzaielako. Ideia ere bota du: etorkizuneko bertsolaritzak ea nola erantzungo lioken gaiak horrela proposatzeari...

#### NOIZ GEHITZEN DUEN ETA NOIZ KENDU

Elixabetek «zailtasunak» ikusten dizkio auziari. «Ez dut zuka bezain ondo kontrolatzen erregistroa. Zukaz kantatzen ikasi dut, eta bertsoarako gauza asko pentsatu behar dira, indar handia gal daiteke bat-batekoa den saiorako. Hizkuntza menperatzea ezinbestekoa da», argudiatu du.

Baina ez dute erabat baztertzeko, erregistro jakin honek behar zehatzak asetzen dituelako. Hor sartzen da «sinesgarritasuna». «Andoniri amona

Anttoniren papera ematen badiote, nokaz egiteak sinesgarritasuna emango lioke, erabat. Kasu horretan, dudarik gabe, hikak balio du. Baina oholtzara ez goaz jolastera, espermentatzera esan nahi dut. Konpromiso bat duzu eta erantzun egin behar zaio horri. Ez da momentua hikarekin probatzen hasteko», uste du hernaniarrak.

Eskarmentu propiotik hitz eginez, Egañak dio hikaz bertsotan egiteak metrika «deskontrolatu» egiten duela, baita dituen «automatismoak» ere. «Bereziki gauza batek kezkatzen nau: jakiteak hika egiteak noiz gehitzen duen eta noiz ez. Menorreko tonuetan hobeto doa, maioretan krak egiten dit belarrira».

Eta zer diote tokak/nokak izan dezakeen (edo ez) tendentzia sexistaz? «Egia da hikaz aritu izan naizenetan batzuetan uste errotu sexista batetik aritu izan naizela. Egia da. Rolak esajeratzeko balio izan dute bi kodeek, eta sexistak izan gara, onartzen dut». Adibide bezala jartzen ditu labe garaietako bi langile, gizonezkoak noski, eta bi amona balkoian berriketan herriko festetan. Lehengo kasuan ez dute hika erabiltzen; bigarrenean, berriz, bai. «Eta tranpa da, bi langileek ere egin dezaketelako hika, bi amonek noka bezala».

Oholtzatik kanpo jarri du arreta Pagolak. «Generoa puri-purian dagoen honetan, gaztelera 'e' sartzen ari da, 'nosotres' adibidez. Hitanoan horri oso bide motza ikusten diot, mugak dituelako. 'Dizkiat'/'dizkinat'. A, eta neutroa zein da? Hor beste zerbait behar da edo horrek ez du balio behintzat. Denentzat toka edo denentzat noka... eta gero ikusiko da bidea duten edo ez. Erabilerak markatuko du sexistak diren edo ez, zer balore transmititzen diren, eta zer forma hartzen duten». Elkarrizketa hasieran generoa galdetzeko ohitura hartzea beste aukera gisa aipatzen du.

Kalean ere izan ditu esperientziak, hausnarketara bultzatu dutenak. «Hikaz ari dira, baina zu agertzen zara eta zukaz hasten dira. Ez dakit zein punturaino den umiliazioa edo haien ahulezia... Zalantzak sortzen zaizkit».



Nokak eta tokak bertsolaritzarekin duten harremanak badu mamia. Ez da ohikoena hitanoa erabiltzea, baina noiz edo noiz entzuten da oholtza gainean.

Juan Carlos RUIZ | FOKU



# «ZERGATIK EZ?» IDEIA AKUILU, ORIO-BILBO-ORIO LOTU DITUEN BIZI BIDAIA

Amagoia Mujika Telleria

Hogeita hamar emakumek Orio-Bilbo-Orio itsas zeharkaldia osatu dute arraunean. Oriotarrak dira, 35 eta 57 urte bitartean dituzte eta sekula arraunean aritu gabeak ziren. Erronka egiteko motor garrantzitsua izan dute: «Zergatik ez?» ideia. Dokumental batek jaso du bizi bidaia.

**B**errogei urte betetzera zihoan Orioko emakume kuadrilla batek piztu zuen metxa. Zerbaki borobila zela eta modu berezian ospatu behar zutela sentitzen zuten. Ideiak botatzen hasi eta baten bati arraunean ikas zezaketela okurritu zitzaion. Oriokoak izaki, oso gertu bizi dute arrauna. Esan eta egin. Orioko arraun-etxera gerturatu ziren buruan zuten ideia azaltzeko eta han ere eskuak zabalik hartu zituzten. Eta erronka, pausoz pauso, handitzen joan zen. Azkenean, 35 eta 57 urte bitarteko 32 emakumek osatutako taldeak Orio-Bilbo-Orio ibilbidea osatu zuen pasa den uztailean. 198 kilometro lau egunean. Hartara, 40 urte betetzera zihoazenen ospakizun izaten hasi zena adin desberdineko emakume kuadrilla baten erronka bizi bihurtu da. Erronkaren izena, honakoa: «Zergatik ez?».

Hori guztia jaso du Iban Egiguren argazkilari eta bideogile oriotarrak «Zergatik ez?» izeneko dokumentalean. Ordu bete inguruko dokumentalean jaso du bizi abentura hain bereziaren berri. Hain justu, atzo gauz estreinatuta zuten Orioko plazan.

## SEKULA ARRAUNEAN ARITU GABEAK

Aurretik sekula arraunean aritu gabeko emakume talde baten balentria jasotzen du dokumentalak. Amaia Gozategi da emakume horietako bat. «Antolaketa, kudeaketa eta koordinazioa garrantzitsuak izan dira. Bost entrenatzailek osatu dute talde teknikoa eta gure aldetik beste bost partaide aritu dira zuzendaritzan. Erronkaren atzean sekulako kudeaketa eta koordinazioa dago».

Hasiera batean erronka Oriotik Bilbora joatea zen, baina entrenatzen joan ahala –kasik urtebete eman dute entrenatzen– entrenatzaileek ikusi zuten erronka motz geratuko zela eta joan-etorria egitea erabaki zuten. Oriotik Bilbora eta buelta.



Iban Egiguren argazkilari eta bideogile oriotarrak ondo-ondotik segitu du erronka. Erronka jasotzen duen dokumental bat ere egin du.  
IBAN EGIGUREN

Kirol mailan erronkak daukan pisuaz aparte, «Zergatik ez?» erronkak parte hartzaile bakoitzaren eta taldearen beraren barrenak astindu ditu. «Askotan gure buruari mugak jartzen dizkiogu ezertan hasi baino lehen. Alde horretatik, parte hartzaile guztioi sekulako indarra eman digu, argi ikusi dugulako lana eginda, ahaleginarekin eta konstantziarekin, espero gabeko gauzak lor daitezkeela. Arraunaz ezer ez genekien eta oso talde anitza ginen; adinez, bizi-

moduz, batzuk kirolean arituak, besteak sekula aritu gabeak... Bizi esperientzia oso indartsua izan da. Nahi pertsonala nahi kolektibo bihurtu dugu eta balentria handia lortu dugu».

Ahalduntze ariketa izugarria izan da. «Taldekako parte hartzaile asko ari da aipatzen orain daukan sentsazioa sekula ez duela izan. Fisikoki indartsu sentitzen direla eta baita emozionalki ere. Orokorrean oso indartsu sentitzen gara, oso pozik, lana eginez lortu dugu».





naz harro. Pertsona bezala hazi egin gara», nabarmendu du Gozategik.

Herri mailan ere gertaera handia izan da, nahiz eta hasieratik ez duten haizea alde sentitu. «Hasiara gogor samarra izan zen, ez genuelako bultzada handia sentitu. Pentsa, ez dugu lortu emakume patroirik izatea, azkenean gizon bat joan da patroi gurekin! Erotuta geundela esaten ziguten, ez genuela lortuko, errenditzeko... Alde horretatik, gogorra izan zen konfiantza

Dokumentalak, irudi ikusgarriak ez ezik –droneak erabili dituzte aireko irudiak hartzeko–, arraunlarien bizipenak ere jasotzen ditu.

IBAN EGIGUREN

falta hori. Gero, ikusi dutenean serio gindoazela, oso negu gogorra izan arren hor segitu dugula euriarekin, kazkabarrarekin... pixkanaka aldaketa bat izan da herrian eta serio ari ginela sinistu dute». Azkenean, baina, horri ere buelta ematea lortu dute. «Bukae-ran jende asko etorri zait zoriontzera eta barkamena eskatzera. Adibidez, 70 urtetik gorako gizon bat gerturatu zen esanez hasieran ez zuela proiektu honetan sinisten eta gure kontrako apus-



tua ere egina zuela. Baina ikasi duela emakume talde batek zerbait egingo duela esaten badu, egin egingo duela. Eta ez duela gehiago kontrako apusturik egingo, galdu egingo duela bestela».

#### **BAKOITZAK «ZERGATIK EZ» PROPIOAK**

Orio ez ezik, beste herri batzuk ere astindu dituztela sentitzen dute. «Gogoratzen naiz Ondarroan emakume talde bat gerturatu zitzaigula esanez gure erronka bultzada handia izan zela. Ba-



Erronka gogorra izan da. Urtebete eman dute entrenatzen, eguzki zein kazkabar. Itsas zeharkaldia ere ez da samurra izan, beheko irudietan suma daitekeenez.  
IBAN EGIGUREN



koitzak bere 'zergatik ez' propioak ditu, egin nahi dituen baina egiten ez dituen gauza asko; antzerkia egin helduaroan, dantzan ikasi edozein adinetan... Nire inguruan badut 74 urteko emakume bat, hasieratik gure ondoan egon dena. Hark esaten dit orain, zerbait proposatzen diotenean, 'zergatik ez?' esaten diola bere buruari. Giza-kiok, gure buruko mugak kentzen ditugunean, sekulako gaitasuna daukagu», esan du Gozategik.

Esan bezala, urtebeteko prestakuntza eta gero, uztailaren 12an abiatu zuten erronka. Lehen etapa, Orio-Bermeo. Bigarrena, Bermeo-Bilbo. Hirugarrena, Bilbo-Ondarroa. Eta, azkena, laugarren egunekoa, Ondarroa-Orio. Aurreikusi bezala, lau egunetan osatu zuten bidea, nahiz eta tartean sortu zen korapilorik. «Lehen egunean goizeko zazpitan abiatu ziren Oriotik. Bat-batean haizea sartu zen eta itsasoa erabat zakartu zen. Sekulako olatuak sortu ziren eta

ura sartu zitzairen txalupan belaunetarraino. Getaria parera iritsi zirenean barrura sartzea erabaki zuten, sekulako itsasoa zegoelako. Arratsaldeko lauak arte zain egon ziren, itsasoari begira. Une batean etapa hori bertan behera uztekoan ere egon ziren. Dokumentalak jasotzen du une hori, arraunlariak burumakur ageri direna. Baina, azkenean, eguzkia atera eta itsasoa baretu egin zen. Eta aurrera segitu zuten. Gaueko bederatzietan iritsi ziren Ber-

meora. Gainontzeko hiru egunak oso onak atera ziren eta aurreikusitako ordutegian joan ziren», azaldu du Iban Egiguren dokumentalaren egileak. Traineruaren ondo-ondoan egin ditu lau egunak eta lau gauak, une guztiak bere kamerarekin jaso nahian. Horrez gain, airetik irudiak hartu dituzten droneak ere erabili ditu.

#### DRONEAK AIREKO IRUDIAK HARTZEKO

«Hasieratik ikusi nuen erronka dokumental batean jaso behar zela. Historian lehen aldiz egin du Orioko emakume talde batek horrelako balentria eta hori jaso beharra zegoela garbi neukan. Droneak erabiltzeko aukera ere garbi ikusi nuen, euskal kostaldea zoragarria delako airetik begiratuta. Sekulako irudiak lortu ditugu», esan du.

Irudi ikusgarriez gain, dokumentalak arraunlariaren sentipenak ere jasotzen ditu. «Oso-oso bizipen berezia izan da. Emakume horiek lortu dutena sekulakoa da. Urtebetean arraunean ikasi eta bere buruari jarritako erronka bete dute. Ni ere asko hunkitu naiz dokumentala grabatzeko orduan».

Eta, orain, zer? Amaia Gozategiren hitzetan, «niri pertsonalki eta taldeko beste kide batzuei gustatuko litzaiguke arraunean segitzea, ez konpetizioan, zaletasunagatik baizik. Baina arraunak azpiegitura oso konplexua behar du, hori da arazoa. Ea zer egiten dugun».





Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

## IKUSMIRA

# ZEREN ETA NOREN ARABERAKO EGIA?

«Gertakariekin lotutako indar armatuetako kideen ohorearen kalterik gabe» egingo da egiaren bilaketa. Hori omen da uztail amaieran Lakuako Gobernuak eta Madrilgo Gobernuak Estatuaren biktimak aitortu eta erreparatzeko legearen aurkako helegitea bertan behera uzteko lortu zuten akordioaren zehaztapenetako bat. Lege hori ez da biktimen inguruan egindako lehena. Zergatik egin beharra dago aurrekoetan egiten ez diren ñabardurak? Zergatik ez dira berdinak biktimen lege guztiak, baldin biktima guztiak berdinak badira? Zergatik orain arteko legeetan ez dago horrelako azalpenik; esate baterako, «gertakariekin lotutako pertsonen ohorearen kalterik gabe» dioen oharririk? Besteak beste, polizia sindikatuak lasaitu nahi omen dituzte, lege hori erasotzat hartzen baitute.

28 urte daramatza Mikel Castillo iruindarraren familiak egiaren bila. Haren semea polizia batek hil zuen, lekukoaren arabera desarmatuta zela. Bada, handik 15 egunera, kondekoratu egin zuten. Gertatutakoaren egia jakiteko ahalegin guztiak 28 urtean murru bat buruarekin jotzearen pareko izan dira. Mikel Castillo ETako kidea omen zen. Baliteke. Eta izan ez balitz? Egia ezagutzeko eskubidea, edonola ere, bera da bi kasuetan. Ezin hobeto azaldu zuen joan den astean Begoña Castillo Mikelen arreba egunkari honetan: «Akaso Mikel Zabalza ETakoa izan balitz, berau torturatu eta hiltzea zilegi izango al zen?». Xabier Izaga



**Gorka Etxebarria Dueñas**  
Historialaria

## Urtegiak apurtu

**M**etalezko bola erraldoiak bere bidea egin zuen. Danba! Behin. Eta Bitan, hirutan. Danba! Eraiste makinetako langilek gogor ziharduten lanean. Danba! Kraskatzen ari zen Ulibarriko urtegiaren presa. Danba! Zuloa ireki arte. Uraren indarrak urtegiko hormak zartatu arte. Olatuak jan zituen Arroiabe, Mendibil eta Durana. Betoñoko industriagunea. Zaramaga. Eta Herrandarren kalea ubide bihurtuta, baita Judimendi, Adurtza eta unibertsitatea ere. Bizirik geratu ziren gasteiztar guztiak Alde Zaharreko mendixkan gotortu ziren. Bertatik teilatuak baizik ez ziren ikusten, ez-tandak eta kea. Hondamena eta kaosa. Azkenean, gorriek eta abertzaleek lortu zuten beren helburua. Zibilizazioaren amaiera, basakeriara itzulera.

Edo gu edo kaosa! Urduritu egin dira batzuk sinboloekin. Negarrari ezin eutsi Jose Antonio ahoskatzeko ere kapaz ez zen falangista hori. Bakarrik utzi omen dituzte, umezurtz. Virginia Lopez de Maturana historialaria ere larrituta dabil, espainol abizena kendu zioten (agian jakintzat ematen delako?) egunkari horretan. Ea nolatan erabaki duten Mendiolako herritarrek, asanblada batean, Olarizuko ton-torrean dagoen gurutze horretaz nekatuta daudela.

**Gurutze handi-handi bat da. Harrizkoa. Estiloa? Itsusitasun frankista, gustu barik egina. Grisa, garaia izan zen bezalakoa.** Estetikagatik bederen, nire boza eraistearen alde. Ekologia bisuala. Baina nonbait historialari batzuk kezkatuta dabilta, frankismoan egin zen guztia desagerrarazi behar ote den... Virginiak galdetzen

zuen: «Zer izango da hurrengoa, urtegiak apurtzea?». Bai, ez dezala zalantzarik izan. Eta gero, gorriek ume jaioberriak jango dituzte herriko plazan, demostratzeko egiazko ezkertiarrek direla.

**Dirudienez, frankismo garaiko sinboloak adiskidetze-gune bihurtu behar dira. Espainiar intelektualitatearen eta unibertsitate autonomikoko espezialisten zati handi batek erabat barneratuta baitu historia-  
ren ikuskera frankista.** Honako hauxe: Espainia kaosa zen eta kaosak gerra ekarri zuen. Diktadurak ordena berrezarri zuen. Eta behin hori lortuta, trantsizioz, xuxurlatuz, min egin gabe bultza eginez, frankistek demokrazia onartu zuten. Beraz, orain espainiar guztiak adiskide behar dute izan. Gogorarazi behar digute, betirako, gerra izan zela. Baita nork irabazi zuen ere. Paisaia zalantzan jartzea ordena zalantzan jartzea da. Kaosa berriro!

Gasteizko etxeetako leihotatik ikusten dugun Olarizuko gurutzeak gogorarazten digu hori. Eztabaidaren mamia, zentzu horretan, ez da zehazki nork eskatu zuen gurutzea eraikitzea, edo antzina mendiari Kutzemendi esaten zitzaionetz. Mantentzearen edo kentzearen erabakia herritarrok hartu behar dugu. Eztabaidak adierazi duena da nor jarri den urduri. Nork ezarri nahi duen bere iritzi zientifikoa herritarren ezein erabakiren gaineratik. Nork duen barneratuta frankismoaren diskurtso historikoa bere mezu zientifikoan. Hau da, nor den elitista eta kontserbadorea. Nor doan korrika komunikabideetara jendailak, ezjakinek... hitza dutenean. Izan ere, jendaila ezjakin horrek du gogoan La Pollak abesten ziguna: «Gerra Zibila galdu zutenen lagunak gara gu...». •



«Zer izango da hurrengoa, urtegiak apurtzea?».

Iñigo URIZ | FOKU



{ koaderno } **Amaia Nausia Pimoulier**

# Gizon guztiak ez dira berdinak

**P**asa den asteburuan gure herriko jaiak ospatu genituen. Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, Antsoainen ere musika, barrakak eta festa giroarekin batera eraso sexisten kontrako protokoloa martxan jartzen da urtero. Antsoaingo La Mara mugimendu feministak hainbat ekintza aurrera eramaten ditu, besteak beste, letra handiekin herriko hainbat lekutan telefono zenbaki bat erakusgai jartzen du eraso baten biktima edo lekuko izan den edonork horretara dei dezan. Telefonoaren beste aldean boluntarioak daude guardia egiten edozein eraso ekidin nahian. Iruñerriko beste jaietan ikus daitekeen telefono zenbaki berdina da, eta, biktimei zuzenduta egotez gain, lekuko izan gaitezkeen guztiei ere egiten digu dei, borroka hau guztion ardura dela oroitarazteko. Garrantzitsua iruditzen zait bidali nahi den mezua: gizartearen aurrean biktimak babesten ditugun bitartean, erasotzaileak isolatu behar ditugula. Helburuak hori izan behar duelako, eraso bat gauzatu nahi duen horri bere asmoa burutu ezin bihurtu, eta, horretarako, guretzat aske sentiarazten gaituzten jaiak eta kaleak eraiki behar ditugu. Laburbilduz, hainbestetan entzun den esaldi hori egia bihurtu: “Etxera joaterakoan aske izan nahi dut, ez ausart”.

Deigarria egin zait ere aldarrikapen feministak euskal gizartearen aldarrikapen historikoen mailan kokatzen ari direla ikustea. Euskal presoek eskubideak defendatzea eskatzen duten pankarten ondoan autodefentsa feministaren alde egiten duten mezuak agertzen dira. Aurten Antsoaingo txosnetan letra nagusiz “euskaldunak, parekideak eta parte hartzaileak” irakurri ahal izan da, eta, Udaleko Berdintasun Sailetik emandako leloa ondorengoia izan da: «Jaietan ere, eta, beldurrik gabe, libreak gara».

Horrez gain, Udalak urtero bezala Rafael Alberti plazan eraso sexisten kontrako borrokaren sinbolo bilakatu den esku gorria kokatu zuen. Eskultura bat da, egurrez egina, handia bezain esanguratsua; “stop matxismoari!” oihukatzen duela dirudi. Gizartea, instituzioak, mugimendu feminista eta jai herrikoietan parte hartzen duten boluntarioak gure gizarteak gaur egun duen arazo larrietariko bati begira jarri direla esan genezake eta hori berri ona da. Baina, zoritxarrez, mezua ez da oraindik leku guztietara iritsi.

Asteburuan, gauez, pertsona batek edo pertsona talde batek eskulturaren gainean gasolina bota zuten eta su eman zioten. Eskuaren ondoan, gaztele-raz, honakoa idatzi zuten: “Gizon guztiak ez gara

Zorionez, gizon guztiak ez dira berdinak, badaude gurekin parekidetasunaren alde borrokan dihardutenak ere, barneratutako aurreiritzien kontra eta mezu matxisten kontra borrokatzen direnak

berdinak”. Nik mezu hori idatzi zuen horri zera esan nahi diot: arrazoia duela.

Zorionez, gizon guztiak ez dira berdinak, badaude gurekin parekidetasunaren alde borrokan diharduten gizonak ere, barneratutako aurreiritzien kontra eta mezu matxisten kontra borrokatzen direnak; beti indartsu, lehiakor, borrokalari, protagonista, edo zertarako gai, babesle edo boteretsu izan behar dutela sinisten ez dutenak. Bai, zorionez, gizon guztiak ez dira erasotzaileak eta, zorionez, gizon asko gurekin batera su horrekin minduta sentitu ziren. Eta, hurrengo egunean, jai giroa berreskuratuz, gurekin eskua garbitu eta berriz gorritz margotu zuten. •

**R**IPen punk oldarkorretik hasita Anita Parkerren elektro swingera arteko bidean, Euskal Herriko ehunka musika taldek grabatu dituzte euren kantuak Arrasateko Shot! musika estudioan. 24 urteko historia musikal oparoa gordetzen zuen estudioak, harik eta aurtengo maiatzaren 11n suak dena kiskali zuen arte. Iñaki Bengoa estudioaren kudeatzailearen «etxea» itxita dago erre zenetik, baina arrasatearra gogoz dago etxera itzuli eta entzungailuak jarrita grabatzen hasiteko. Suak kendutakoa musikari itzultzeko kontzertu bat antolatu dute Bengoaren lagunek, eta, besteak beste, Ruper Ordorika, Ines Osinaga eta Huntza taldea igoko dira igande arratsaldean Arrasateko Amaia Antzokiko agertokira, 19:00etan.


**Sutea gertatu zenean asko galdu zenuen, baina pertsona askoren laguntza jaso duzu geroztik.**

Asko galdu dut, baina baita asko irabazi ere. Eraikinetik sugarrak ateratzen ari zirela pertsona ugari deitu zidaten, Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko musikari pila batek. Guztiek lagundu nahi zuten. Uste dut lanean daramatzagun urte guztien emaitza dela hori, eta baita Euskal Herrian musikaren mundua oso solidarioa delako ere. Horren guztiaren ondorioa igandeko kontzertua da.

**Nola oroitzen duzu sutearen eguna?**

Aurreko egunean *bolo* batean egon nintzen La Furiarekin eta esnatu ninduten esanez estudioatik kea ateratzen ari

*«Gehien izorratzen nauena gauza zaharrak galdu izana da. RIP, La Polla Records, Gatillazo eta beste talde askoren grabazioak galdu dira. Shot! estudioatik 24 urtean 400 musika talde inguru pasatuko ziren, eta musika pista guztiak galdu dira, grabazio masterrak, argazkiak...»*





# «Momentu batean sentitu nuen iragan zati bat galdu nuela»

zela. Iritsi nintzenerako ez zen ezer geratzen. Ezin nuen sinetsi gertatzen ari zena, sugarrak leihoetatik ateratzen ikusi banituen ere. Estudiora sartu nintzen eta zerbait harriarria gertatu zen: urez beteta zegoen dena, eta, uretan flotatzen, Anita Parkerren diskoak zeuden. Anita Parkerren material guztia salbatzea lortu genuen; seinale moduko bat izan zen, kontzertuak ematen segitzeko indarra eman zidan. Aurrera egin behar da beti, eta asteburuetan Anita Parkerrekin kontzertuak emateak bizitza eman dit niri. Musikak salbatu du musika.

**Shot! musika estudio bat baino askoz gehiago da zuretzat, ezta?**

Nire etxea da. Dena neukan bertan, etxean oso gauza gutxi ditut.

**Sutean musika ekipoa baino askoz gehiago galdu zenuen. Oroitzapenak, grabazio masterrak. Hori ezin da dirutan neurtu.**

Gehien izorratzen nauena gauza zaharrak galtzea da. RIP, La Polla Records, Gatillazo eta beste talde askoren grabazioak galdu dira. Shot! estudiotik 24 urtean 400 musika talde inguru pasatuko ziren, eta musika pista guztiak galdu dira, grabazio masterrak, argazkiak... Historia galdu da, eta momentu batean sentitu nuen iragan zati bat ere galdu nuela.

**Musika teknikari ikasketak egin zenituen Bartzelonan eta esperientzia ugari bizi izan zenituen bertan, harik eta Olinpiar Jokoen iritsiera-ekin batera ihes egin zenuen arte. Zer jaso zenuen bizipen horretan?**

Bartzelonan dena ikasi nuen, rock katalan guztia xurgatu nuen, Sopa de Cabraren garai-koa. Gaztetxoa nintzela Euskal Herriko rock erradikala gustatzen zitzaidan, baina hangoa beste zerbait zen, antolatua goa-edo. Kataluniako Gobernuari rocka katalanez egitea interesatzen zitzaion, Eusko Jaurlaritzari, aldiz, sekula ez dio interesa piztu rockak. Hala ere, ni hemengoarekin geratzen naiz.

Olinpiar Jokoak hasi eta hurrengo egunean bertan itzuli nintzen Arrasatera, eta Bartzelonan ikusitakoak etxean zerbait egiteko gogoia piztu zidan. Horrela hasi zen Shot! sortzeko ideia.

**Zer esan zizueten herri batean musika estudio bat sortu-ko zenutela esandakoan? Zer zailtasun izan zenituzten Shot! Arrasatera ekartzeko?**

Guk argi geneukan estudioa Arrasaten muntatu nahi genuela, baina inork ez zuen ezer ulertzen, jendeak ez zekien zertarako balio zuen musika estudio batek. Garai hartan, Gasteizen, Donostian eta Bilbon zegoen musika. Azalpen ugari eman behar izan genituen. Kokapenak, beraz, zailtasunak ekarri zizkigun, eta baita finantzazioak ere. Dirua beti da arazoa.

**Nolakoak izan ziren Shot! estudioaren hastapenak?**

Inuzenteak ginen, baina ilusio handia genuen. Ondo egin nahi genituen gauzak, baina ez genekien nola. Zortea izan genuen, zeren RIP taldearekiko lotura handia zegoen orduan, eta horri esker musika talde garrantzitsuak sartu ziren estudioa. Kortatu, SA, estudiotik igaro ziren, eta talde horiek talde txikiago batzuk

ezagutzera eraman gintuzten. Beti gustatu izan zaigu talde berrieekin edo ezezagunekin lan egitea.

**Arrasate betidanik izan da herri musikala, bereziki rockeroa: RIP, Puñetazo, Deskontrol... bertan sortu ziren. Zergatik izan du Arrasatek horrenbesteko lotura rockarekin?**

Ez dakit zergatik edo nola sortu den Arrasate eta punk edo rockaren arteko harremana, baina badakit zergatik hil den: kooperatibak hil du punka. Lehen amorrua zegoen, eta, horri esker, gauzak egiteko eta esateko beharra. Orain, dirua medio, zailagoa da. Kooperatiben boomarekin batera itzali zen hura guztia. Eta, noski, RIP erreferentzia indartsua izan zen jira bereko talde berriak sortzeko.

**RIP familiaren parte zinen zu ere, beraien soinu teknikaria izan baitzinen taldearen bigarren etapan. Beraien izaerak markatu zintuzten?**

Niretzat ohorea izan da RIP familiaren parte izatea. Lau pertsonaia interesgarri ziren, RIP izan da bizitzan gehien erakutsi didan taldea. Beraien teknikaria izan nintzen, baina baita laguna ere. Gauzak egiteko moldeak ez zuen zerikusirik egun egiten denarekin; askotan desastre bat zen, baina punka zen. Ez ziren oso antolatuak, baina aurrera egiten zuten beti. Itzela izan zen RIPen garai onak bertatik bertara bizitzea eta onik ateratzea. Baze- goen zerbait orain batzuetan faltan sumatzen dudana: kantuak. Zuzenean bihotza kolpatzen zizuten kantuak.

**RIP, Potato, La Polla Records, SA eta tankera bereko musika**

## IÑAKI BENGEOA

### SHOT! MUSIKA ESTUDIOA

Soinu teknikaria da Iñaki Bengoa. 90eko hamarkadan Arrasaten Shot! musika estudioa sortu zuen, eta bertan hasi eta hazi dira Euskal Herriko musikari eta musika talde ugari.

Maddi Txintxurreta Agirregabiria



**talde ugari pasatu dira Shot! estudiotik. Baina baita Elgoibarko Udal Banda, Aretxabaleako Akordeoi Orkestra eta Donostiako Txistularien Alardea ere.**

Eta Oskorri! Horiek bai esperientzia onak. Askok ikasi dut beraiekin guztiekin, eta Elgoibarko Udal Bandarekin grabatzea egin dudana gauzarik hoberenetakoa bat izan da. Agian, esaten zutena ez zen horren garrantzitsua, baina bai nola esaten zuten.


**Sekula ez duzu apustu egin irabazlearen alde; estilo estandarrek alboratu dituzu molde berrien alde.**

Sekula ez zaizkit gustatu gauza normalak. RIPekoak ere arraroak ziren hasi zirenean, erotzat zituzten askok, eta begira. Batzuetan publikoari ez zitzaion gustatzen egiten genuena, baina guri berdin zitzaigun; gustatu edo ez, berdin gogobetetzen gintuen musikak. Dead F-line taldearekin pasatu zitzaigun, Gose ere jendearentzako arrotza zen hasieran, gero arrakasta izan dugun arren. Elektronika ez da inoiz erraza izan Euskal Herrian.

Nire helburua da niri gustatzen zaizkidan kantuak sortzea, kantu bat abesten duzun bakoitzean bizitza ematea, ehun bider abestu baduzu ere. Imajinatzen dituzu RIP edo La Polla Records gogo barik abesten? Zintzotasun kontua da.

**Arrasateko eta Euskal Herriko musikaren historiaren parte izan zara goeko hamarkadatik hona. Nola deskribatuko zenuke urte hauetan guztietan ikusi duzuna?**

Dena ikusi dut Euskal Herriko txoko honetatik. Kontzertu oso onak ikusteko aukera izan



dut, txarrak ere bai, baina denetatik ikusi behar da. Egia da rockaren garai onenak pasatu direla, baina orain ere badago rocka eta punka. Mursego eta Belako, adibidez. Mursego ikusten dudana bakoitzean hazin egiten dut.

**Orduan, punka ez da guztiz hil?**

Ez! Orain punka ez da garai bateko kresta eta gitarra distorsionatua. Mursego da oraingo punka!

**Musikari askok Shot! estudioan eman zituzten lehen pausoak, eta orain handiak dira Euskal Herriko musikaren munduan. Zer sentiarazten dizu hastapenetan hor egon zinela jakiteak?**

Musika talde asko gure estudioan hasi ziren grabatzen inork ezagutzen ez zituenean, eta ondoren jo dute goia. Nik ez nekien, baina Mareako Ku-

## MUSIKAK SALBATU NAHI DU MUSIKA

Arrasateko Shot! grabazio estudioa erre ondoren, Iñaki Bengoaren lagunek eta musika munduko bere inguruak hainbat ekimen prestatu dituzte estudioa berpizteko. Hartara, bihar, irailaren 23an, Ishot!U jaialdia izango da Arrasateko Amaia antzokian, 19.00etatik aurrera. Ibilbide luzea egindako musikariak igoko dira oholtzara, Shot! estudioko lagunei besarkada musika forman ematera: Ruper Ordorika, Petti eta Barrenan Semiak, Ines Osinaga, Aiora eta Piti, Huntza eta Pablo Novoa & Keu Agirretxea.

Sarrerak ondo saltzen ari dira (<https://ticket.kutxabank.es/amaiaarrasate/public/janto/>) eta egunean bertan txarteldegian erosteko aukera ere izango da.

Ishot!U elkartasun jaialdi bat da. Antolatzen dabilen lantaldearen hitzetan, «Shot! estudioa sutan zegoen momentuan bertan, suhiltzaileak lanean zeudela, bertara gerturatu ginen Iñakiren lagunak ikusi genuen elkartasun ekimen batzuk martxan jarri behar genituela, bai edo bai, zerbait egin beharra zegoela argi ikusi genuen. Hori guztia, noski, Iñakiri ezer

esan gabe!». Ez da harrizkekoa laguntzeko nahi hori, Shot! estudioak oso ibilbide propioa egin baitu urte luzez eta musikari askok maitasun berezia baitiote orain kiskalita dagoen txokoari. Hartara, ekimenak harrera bikaina izan du musikarien artean. «Ia 25 urtean Euskal Herriko zein kanpoko talde ugari Shot! estudioetan grabatu dituzte beraien diskoak; zerrenda amaigabea da. Harrera bikaina izan du ekimenak musikarien partetik. Euskal Herrian musikariak beti egin dituzte elkartasun keinu garrantzitsuak. Oraingoan, gainera, musika munduko bati laguntzeko da».

Ishot!U ekimenaren bultzatzaileen ustez, herri bateko musika estudio txiki bat berriz martxan jartzeko indarra egin beharra dago. «Esperientzia handia duen estudio bat herrian edo bailaran izateak gauzak asko errazten ditu bai talde berrientzat bai ibilbide luzeko taldeentzat. Gainera, Iñakiren bizitza osoko esperientziak dena errazten die taldeei».

Aurrerantzean ere ekimen gehiago antolatzeko asmoa du Ishot!U lantaldeak.



txi Romerok esan zidan Shot! izan zela zapaldu zuen lehenengo estudioa. Musika talde batekin disko bat grabatzen ari zarenean, harreman estua sortzen da musikariekin, eta pentsatzea talde askok entzungailuak Shot! estudioan jantzi dituztela lehenengoz, harrigarria da niretzat. Inoiz ez dakizu noraino irits daitekeen grabatzen ari den taldea.

### Zenbaterainoko eragina izan du garaian garaiko egoera sozial eta politikoak musikan?

Errazagoa da musika egitea arerio bat dagoenean. Orain, gehiegi lasaitu gara. Lehen ez zen inportantea dirua irabaztea, zeren, dirua irabaztea nahi bazenuen, ez zinen musikari egiten. Gauzak argi esateko beharra zegoen RIPen garaian; orain, aldiz, zerbait lortzea bilatzen da askotan. Bankuek antolatutako musika festibalak ikustea besterik ez dago. Ez dut esan nahi enpresa handiek rockaren alde apustu egitea gaizki dagoenik, baina ez dezatela behintzat musika maneiatu. Musikan musikariak agindu behar dute, beste inork ez, askatasunik gabeko musikari batek ez baitu ezer balio. Nik nahiago dut gaztetxe batean jo.

### Musikari dagokionez, nola ikusten duzu Euskal Herriko egungo panorama?

Musika momentu onean dago Euskal Herrian, lehen pentsaezinak ziren gauzak lortu dira. Adibidez, Berri Txarrak taldeak egin duena ez du inork lortu Euskal Herriko historian. Horraino iristeko zentzuz jokatu behar da, ezin duzu banku baten menpe egon zure musikak aurrera egingo duela ziurtatzeko. Berri Txarrak kasuan, interesgarria da norai-



Bengoaren azken proiektua Anita Parker taldea da. Sutetik salbatu den gutxi horretan dago taldearen materiala. Luis JAUREGIALTZO | FOKU

no iritsi diren, baina interesgarriagoa da nola iritsi diren: lana eginez.

### Geroz eta emakume gehiago taularitzen dira, edo lehen baino ikusgarriagoak dira behintzat

Eta eskerrak! Nik ez nuen ulertzen zergatik ez zegoen emakumerik. Ez zegoen emakumerik ez agertoki gainean, ezta azpian ere. Kasu biak lotuta daude. Atzo Perlataren kontzertu bat ikusten egon nintzen, Arrasateko talde bat, eta oso onak dira. Aurretik esan dudana bezala, gizonak arerio komuna galdu dute soldata bat jaso dutenean, eta gauzak esateko beharra apaldu zaie. Baina emakumeek badaukate arerio hori identifikatuta, gehiago daukate esateko, eta ez dute etekin ekonomikorik bilatzen, bakean bizitzea baizik.

Hala ere, bide luzea geratzen zaigu oraindik. Goserekin jo-



«Sekula ez zaizkit gustatu gauza normalak. RIPekoak ere arraroak ziren hasi zirenean, erotzat zituzten askok, eta begira»

tzen genuenean, sekula ez nuen ulertu zergatik harritzen zen jendea emakume bat jarrerara ziur horrekin trikitia jotzen ikustean.

### Eta zuri, nondik datorkizu musikarekiko zaletasuna?

Egia esan, ez dakit. Txikia nintzenez, nire etxean ez zuten musika entzuten, ez genuen disko jogailurik ere! RIPen garaian zaletu nintzen, artean Doble Cero zirenean. Inork ez dit asko lagundu zentzu horretan, kaseteak grabatzekoa nintzen ni.

### Zer eman dizu musikak eta zer kendu dizu?

24 urtean musikak poza eman dit egunero, eta atsekabea, egun batean bakarrik, sutearen egunean.

### Bi kontzertu antolatu dituzue suak erretakoa berpizteko. Lehena, igandean bertan.

Nik ez dut ezer egin! Dena lagunek antolatu dute. Horrelako gauzak norbait hiltzen denean egiten dira, eta orain ulertzen dut zergatik, zeren bizirik zaudela egiten dizkizutenean, pasatzen duzun lotsa izugarria da! Sekulako kartela osatu dute, Ruper Ordorikatik Huntzara, Euskal Herriko musikaren laburpen polita da.

### Hortaz, bitarte honen ostean, gogo gehiagorekin itzuliko zarela esan daiteke?


Bai, hilabete asko eman ditut ezer grabatu gabe, eta gogo asko ditut nire etxean eseri eta grabatzen hasteko. Uste dut urte bukaerarako prest egongo dela estudioa. Baditugu proiektuak buruan, Shot! estudioan grabatzekoak ziren talde batzuek erabaki baitzuten estudioa berriro ireki arte itxarotea. Dena prest dagoenean orain arte bezala jarraituko dugu lanean, hori bai, entxufeak hobeto zainduz!





Unai  
GAZTELUMENDI

# iRRITZIA:



## Cuenca alboan, iparra galduta

**Nekane  
Zinkunegi  
Barandiaran**

**A**saldura eta txiste mordoa eragin ditu, Eusko Jaurlaritzaren Turismo Saileko iragarki batean, “Basque Country” Espainiaren erdialdean jarri izanak. Cuencaren ondoan edo, ezta? Egia esan, zalantza izaten dut halako akatsak ikusten ditudanean: ez dut jakiten arreta faltagatik egindako hanka sartzeen artean kokatu, edo malizia handiko norbaitek nahitara egindako azio txikia dela pentsatu. Izan ere, beldurra eragiten dit barneratuegi dugun eremu sinbolikoaren ondorio naturala izan daitekeela pentsatzeak.

Bai, badugulako eremu bat barneratuta Euskal Erdian. Bereziki, komunika-

bideetan darabilgun hizkuntzan. Hasiteko, EAEko herritarrok osatzen duguna da “gu”-a, eta Arabari, Bizkaiari edo Gipuzkoari erreferentzia egiteko baliagarria zaigu “hemen”. Nafarroa ez dugu zaku horretan sartzen, Nafarroa izendatu egiten dugu, ez aitortza berezirik egiten diogulako, aparteko gisa ikusten dugulako baizik. Eta gero dago exotismoa: Lapurdiz, Nafarroa Behereaz edo Zuberoaz hitz egiteko baliatzen duguna –oso noizean behin, bistan da–.

Baina hori ez da larriena, Euskal Erdian kontsumitzen dugun aktualitateaz pentsatzen hasita. Azken asteotan,

Espainiako Gobernuako presidentearen tesiek eta PPko buruaren masterrek ireki dituzte albistegiak eta markatu dituzte irrati tertuliak zein kafe bueltako eztabaidak. Kazetariok espekulazioari ere tartea eskaini diogu eta kristalezko bolari begira bageunde bezala aurreikusi dugu zein izan daitekeen Espainiako alderdi politiko nagusien mokokako eztabaidan hurrengo jokaldi estrategikoa.

Beraz, gure –bai, EAEkoon– erkidegoa Espainiako mapan hegoalderago edo ekialderago kokatzea bezain eta are kezagarriagoa iruditzen zait gauden eran iparra galduta egotea. •

## Zutabe diskurtsiboak

**Joxean Agirre**

**U**dan irakurri dudan libururik argigarrienetakoa Sanchez-Cuencaren “La desfachatez intelectual. Escritores e intelectuales ante la política” izan da. Madrilgo egunkari handietako iritzi emaileen artean idazleek duten presentzia nabarmenegia (inguruko herrialdeekin alderatuta, noski) kritikatzeko du eta Sabater, Muñoz Molina, Juaristi, Marias, De Azua, Albiac eta enparauek dituzten obsesioen berri ematen, Ibarretzek bere plana aurkeztu zuenean hasi eta Kataluniako prozesuarekin jarraiki, nazionalismoa eta Espainiaren hondamendiaren arriskua bilakatu baitira gai ia bakar. Darabilten tonua hain da apokaliptikoa, hain agonikoa non askotan ontzia urpe-

ra, Espainia pikutara doala ematen duen. Kataluniaren edo Euskal Herriaren kontra darabilten ahoberokeria hori kalifikatzeko «matxismo diskurtsiboaz» mintzo da autorea.

Liburuak pasadan idazle edo intelektual horietako askoren eboluzio (edo inboluzio) ideologiko harrigarria ere aztertzen du, asko Grapon, Bandera Rojan, ETAn edo ezkerreko edo ezker muturreko taldeetan militatzen hasi baitziren 60ko hamarkadan eta eskuin muturrean bukatu baitute.


Irakurketak, noski, gure prentsak dituen iritzi emaileez pare bat galdera sorrarazten ditu. Euskarazkoetara mugatuz, panorama zertxobait hobea dela dirudi, gero eta aditu gehiago, gero eta

unibertsitateko irakasle gehiago ikus baitaiteke egiteko horretan.

Bi bitxikeria baditugu, dena den: Madrilgo prentsan idazleen duten lekua bertsolariek betetzen dute edo bete izan dute euskarazko prentsan, eta, bigarrenik, emakume zutabegileen ugaritasuna.

Bigarren kontu hori poztekoa da berez. Hala ere, bada emakume zutabegileen artean diskurtso feministarako joera bat. Datu berriak, gogoeta edo ikuspegi originalak ekarri beharrean, auzia aipatu eta diskurtso bat erantsiz osatzen baitute zutabea. “Feminismo diskurtsibo” bat egiten dutela, alegia. Halako zerbait egiten genuen guk marxismoarekin gazteak ginenean. •





Ignacio Robles. Monika DEL VALLE | FOKU

# infraganti

## IGNACIO ROBLES

Saudi Arabiara eramateko armak kargatzeko operatibo batean parte hartzeari uko egiteagatik espediente bat ireki eta zigor «arina» ezarri zion Bizkaiko Foru Aldundiak Ignacio Robles suhiltzaileari. Roblesek herritarren babesa jaso zuen, bere jarrerak arma trafikoari buruzko eztabaida sortu zuelako. Eta bizirik den eztabaida da, izan ere, Espainiako Gobernuak amore eman du Saudi Arabiaren mehatxuen aurrean eta laser bidez gidatutako 400 bonba bidaliko ditu Yemengo gerran parte hartzen ari den herrialdera.

**B**izkaiko Foru Aldundiko suhiltzaileak Bilboko Portu-  
ra hurbildu ziren 2017ko martxoaren 13an, «salgai arriskutsuen karga batean laguntze-  
ko». Ignacio Robles zen lan horretan parte hartu behar zuen suhiltzailetako bat, eta ondo gogoratzen du gertatu zena: «Ja egunero egiten ditugu salgai arriskutsuen kargak, eta egun horretan ez ziguten esan zer kargatuko genuen. Hala ere,

bertan nengoela kontainerrak ikusi eta itsasontziaren izena hizki arabiarrez idatzita zegoela konturatu nintzen. Horregatik galdetu nuen ea zer zen kargatzen ari ginena. Normalean pirotekniako produktuak, metxak edo eraispenetan erabiltzen diren lehergailuak izan ohi dira, baina egun horretan Saudi Arabia helmuga zuten lehergailuak ziren».

Armak kargatzea bere printzipioen kontrakoa zenez, parte hartuko ez zuela adierazi zuen Roblesek. Konponbide erraza adostu zuten: bera basera itzuli zen eta beste suhiltzaile bat bidali zuten lehergailuen kargan parte hartzera, «eta ez zidaten ezer esan». Eta egia da, orduan ez zioten ezer esan, baina bere erabakiak ondorioak izan zituen. «Hilabete bat igaro ostean, kazetari batek esan zidan nire kontrako espediente ireki zuela Bizkaiko Foru Aldundiak», gogoratu du. Aldundiak falta «larri» batengatik ireki zuen espediente, hiru eta sei urte artean lanik gabe uztearekin zigortzen dena. «Zigorrak aurrera eginez gero, gutxienez hiru urte igaroko nituen lanik gabe», azaldu du.

Roblesek salatu duenez, Bizkaiko Foru Aldundiko Suhiltzaile Zerbitzuko arduradunek zigorrik handiena ezarri nahi zioten. «Nire funtzioak ez bete-  
teagatik zigortu nahi ninduten, baina irratiko grabazioei esker frogatu genuen hori gezurra zela. Grabaziotan argi geratzen da nik ez nuela agindurik desobeditu. Are gehiago, nik irtenbide bat bilatu nahi nuela entzuten da. Baina ikusi zutenean horrekin ez zutela ezer lortuko, herritarrak arriskuan jarri nituela esan zuten. Egia ez diren beste zenbait gauza ere esan zituzten. Pixkanaka-pixkanaka akusaziook bertan behera uztera behartu genituen.


Azkenerako, urte luze bat itxaron behar izan dut nire aurkako zigorra ezagutzeko», dio. Ezarritako zigorra «arina» izan da azkenean: Bizkaiko Aldundiak Robles ohartarazi du kontzientzia-objekzioarako eskubidea ez dutelako suhiltzaileek, baina Roblesekin hori ez zekiela ere aitortu du.

### «ABISU BAT»

Suhiltzailearen ustez, ezarritako zigorra «abisu bat» da, beste suhiltzaileek berak irekitako bidea ez jarraitzeko. Hala ere, gutetan erabiltzen diren armen salmenta salatzen jarraituko duela argi du Roblesekin. Eta ez dago bakarrik, espediente ireki ziotenetik herritar ugariaren elkartasuna jaso baitu. «Jendearen erantzuna oso garrantzitsua izan zen. Greenpeace [erakunde ekologikistako kidea da Robles] eta beste mugimendu batzuek manifestazioak egin zituzten armen salmentaren aurka, eta Bilboko Portuak ezin zuela ezer egin esan zigun. Ondoren, engainatu egin nahi izan gaituzte: sartzen ziren ontzien arrastoa ezabatu eta banderak aldatu dituzte gertatzen zena ezkutatzeko. Baina ez dute lortu, eta mobilizazioak egin ditugu armak eramango zituzten itsasontziak portura heldu direnean», nabarmendu du.

Presio horren ondorioz, Bilboko Portuak armen trafikoa eten zuen udaberrian. Otsailaren 26an ateratu zen azken kargamentua bertatik Saudi Arabiara. Erabaki hori garaipen txiki bat izan zen eragile sozialentzako, oraindik ere borrokan tinko mantentzen direnak. Izan ere, gaur egun Santanderko Portutik ateratzen dira armak eramaten dituzten itsasontziak. «Santanderko eragileekin hitz egin dugu, eta elkarlanean aritzeko prest gaude bertan protestak egiteko. Bertara eraman nahi





Ignacio Robles suhiltzailea, atzean Bilboko Portua duela. Monika DEL VALLE | FOKU

dugu Bilbon mantendu dugun presioa», adierazi du Madrilgo Gobernuaren jarrera gogor kritikatzeko duen suhiltzaile militanteak.

#### MADRILGO GOBERNUAREN JARRERA

Duela hiru aste, Defentsa Ministerioak Saudi Arabiara armak saltzeko prozesua geldituz Yemen bonbardatzeko erabil zitzaketelako. Arabiarrek Navantiarekin sinatutako kontratuak bertan behera uzteko aukerarekin mehatxa egin zuten orduan, eta Espainiako Gobernuak atzera egin zuen. Pasa den astean, Josep Borrell Atzerri ministroak laser bidez gidatutako 400 lehergailu Saudi Arabiara bidaliko zituztela iragarri zuen. Azaldu zuenez, «doitasun-armak» dira, eta ez omen dute «albo ondoriorik

eragiten, izugarritzko zehaztasunarekin iristen baitira jomugara». Dirudenez, Borrellek ahaztu egin ditu uda honetan telebista guztietan ikusi diren bideoak, Yemengo herritarren aurkako bonbardaketak argi asko frogatzen dituztenak...

Roblesek gertatutako «lotsagarria» dela azpimarratu du: «Berlangaren film batetik ateratako eszena dirudi». Armak herritarren aurka erabiliko direla susmatuz gero, Saudi Arabiaren kasuan gertatzen den bezala, legediak ar-

**Zigor «arina» ezarri dio Bizkaiko Aldundiak Roblesi armak kargatzeari uko egiteagatik. Suhiltzaileek kontzientzia objekziorako eskubiderik ez dutela ohartarazi dio Aldundiak**

**Madrilgo Gobernuaren «jarrera lotsagarria» salatuko du suhiltzaileak. «Saudi Arabiari saldutako armekin gertatutakoak, Berlangaren film batetik ateratako eszena dirudi», dio irmo**

mok saltzea debekatzen duela dio, egungo iruzurra azaldu baino lehen. «Legea betetzeko, PPren Gobernuak zenbait klausula sinatu zituen Saudi Arabiarekin. Akordio horietan erositako armak herritarren aurka erabiliko ez zituela esaten zuen Saudi Arabiak, baina horrek ez du ezertarako balio: guztiok

guztiok dakigu klausula horietan jasotakoa ez dela betetzen. Egungo Gobernuak ordezkariek beraiek ere kritikatu zituzten klausula horiek, eta aldatu egin behar zi-

rekin jaso-  
takoak ez dela betetzen. Egungo Gobernuak ordezkariek beraiek ere kritikatu zituzten klausula horiek, eta aldatu egin behar zi-

rela adierazi zuten. Baina amore eman dute Saudi Arabiaren mehatxuen aurrean. Lotsagarria da zinez Defentsa ministroa Saudi Arabia 'herri serioa' dela esaten entzutea...».

«Argia» astekariak argitaratutako datuen arabera, 2012 eta 2016 artean Espainiak 1.400 milioi eurotan baloratutako armak saldu zizkion Saudi Arabiari. 2017an beste 361 milioi euro izan ziren, aurreko urtean baino %133 gehiago. Tartean ziren hegazkin militar bat, granadak eta artilleria-munizioa. Eta Roblesek esaten duenez, Euskal Herriko enpresek ere parte hartzen dute negozio honetan. «Asko hitz egiten da lehergailuei buruz, baina horiek jaurtitzeko hegazkinak behar dira, eta Saudi Arabiak erabiltzen dituen hegazkinen motorrak Zamudioko Parke Teknologikoan egindakoak dira. Eta motorron mantentze-lanak Zamudioko enpresa batek egiten ditu. Ezin diogu gure ardurari uko egin», gaineratu du. Enpreson garrantzia aitortu eta aurrerapauso teknologikoak emateko ezinbestekoak direla onartzen du Roblesek, baina «arlo militarreko teknologiak Euskaditik atera behar ditugu» gaineratuz.

Hori lortzeko, Roblesek EAEko erakundeek neurriak hartu behar dituztela nabarmentzen du, industria militarrean parte hartzen duten enpresa askok harreman estuak baitituzte La-kuako Gobernuarekin eta foru aldundiekin. Euskal Herriko Unibertsitatea, esaterako, elkarlanean aritzen da enpresekin. «Argi utzi beharko genieke enpresei horrelako hitzarmenak ez direla sinatuko industria militarrean zuzendutako proiektuak badituzte. Horrek bete beharreko baldintza bat izan beharko luke», amaitu du. •

Ion Salgado





**Ana Elozegi Serna**  
Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

## «Fortnite»

**H**ementxe dela, he-  
mentxe dela! Iraila  
etorri da, eta, urtero  
legez, hemen gabil-  
tza, sabelean txime-  
leta txikiak izango  
bagenitu bezalako sentsazio ho-  
rrekin... Ikasturtearen hasierak ba-  
dakar horrelako kezka bat, haurrak  
eta nerabeak gustura hasiko ote di-  
ren eskolan, zein gela eta irakasle  
egokituko zaizkien... Izan ere, egun,  
oraindik ere, haurra eskolara gustu-  
ra joateak tokatu zaizkion irakaslee-  
kin lotura handia du.

Ikastolatik atera eta eskolaz kan-  
poko jarduerak, hango pilota eta he-  
mengo dantzak, antzerki ikastaro  
eta zaldi doma... Ondorioz, puzzle  
handia balitz bezala, sukaldeko pa-  
retan denon ordutegiak antolatu be-  
har. Eta, gero, gure asmo berriak:  
aurten zumbara joango naiz, gimna-  
siora, ingeles eta frantses eskoleta-  
ra, elikadura zainduko dut...

Bertsolari ezagun batek esan zuen,  
eta berarekin bat nator guztiz, berak  
ikasturteka antolatzen zuela bere  
burua, ez urteka. Agian ez litzateke  
idea okerra izango Gabon zahar  
eguna aurreratzea...

**Eta halaxe gabil-tza, alde batetik  
bestera. Aurten, nire laneko asmo-  
en artean, gai baten gaineko azter-  
keta eta lanketa egitea dago. Az-  
kenaldian kezkatua bainabil gure  
mutilekin, haur zein gazte.** Hainbat  
profiletako mutilak ezagutzen ditut,  
sentsibiltate oso ezberdinetakoak,  
baina ia denek dute ezaugarri bat ko-  
munean beraien harremantzeko mo-  
duan: Play Stationaren gehiegizko  
erabilera. Orduak eta orduak pasa-  
tzen dituzte beraien geletan pantaila  
aurrean, batzuetan bakarrik jokatzeko  
eta besteetan sarean lagunekin...

Badaude mutil batzuk, Lehen Hez-  
kuntzako 5. mailatik hasi eta Batxil-  
goraino, kalera lagunekin jolastera  
atera baino nahiago dutenak etxean  
“biziatzen” egon. Eta, ondorioz, jolas-  
tera atera nahi duten haur asko kalera-  
ko lagunik gabe geratzen dira. Horren  
aurrean, non daude gurasoen mugak?  
Mutilen gurasoek hitz egin beharko  
liekete, bideo jokoa aritzeko den-  
bora eta muga bateratu batzuk adoste-  
ko. Irtenbide bat litzateke, baina ez da  
egiten. Bestalde, frogatuta dago pan-  
tailekiko gehiegizko atxikimenduak  
ikasketetako errendimendua jaitea  
dakarrela, arreta jartzeko zailtasunak,  
motibazioa galtzea... Buruan “Fortni-  
te” bideo jokoko pertsonaiak eta se-  
kuentziak, besterik ez.

**Baina gehien arduratzen nauena  
da bideo jokoa horrek bizitza errea-  
larekin duen antzekotasuna: per-**

**tsionak hiltzean dago gakoa, eta,  
galtzerakoan, alegia, beraien hil-  
tzen dituztenean, izugarriko  
amorrua sentitzen dute haurrek.**  
Sentsazioa daukat bizitza errealean  
egoera ezberdinetan sentitzen du-  
ten amorrua joko horren bidez ate-  
ratzen ez ote duten. Beste gazte ba-  
tzuek, aldiz, jokoan izandako porrot  
txikiak beraien bizitzetan islatzen  
dituzte, “suerte txarra daukat”, “ga-  
fea naiz”, edota norbere etxean ho-  
rrelako hiltzaile madarikatu bat ate-  
rako ote zaien beldurra...

**Honako hau ere uste dut: gu geu,  
gure asmo berrien, lanaren eta es-  
kolaz kanpoko jardueren artean gal-  
du egiten gara, ohartu gabe gure  
haurrak benetan zertan ari diren jo-  
katzeko. Agian informazio eta muga  
batzuk ez lirateke gaizki etorriko  
ikasturte berriko asmoen artean! •**



Orduak eta orduak pasatzen dituzte mutilek beraien geletan pantailaren aurrean.

# BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. FOTOCAR FUNTSA. KUTXATEKA

## HIRU MUSU, HIRU ARGAZKI

1921ean, Marokoko Protektoratu Espainiarrean, Abd el Krim Rifeko buruzagiak gidatutako herriak Espainiako Armadaren aurka matxinatu ziren. Arrifiek lurralde haietako parte bat berreskuratu zuten eta, hala, Armada espainiarrak Annual eta Al Aarauiko gotorlekuak galdu zituen. Urte hartako uztailean eta abuztu artean, 1922an Juan Picasso dibisio-jeneralak egindako txosten baten arabera, ia 11.000 soldadu hil ziren. 1921ean bertan, Pasaiaiko portuan, Ricardo Martinek argazki bat egin zuen, agur bat jaso zuena. Gizon bat bere ama besarkatzen ageri da. Ontziratu egin behar zuen, Afrikara joateko, gerrara; senide eta lagun maiteengandik urrun, heriotzara eraman zezakeen gerrara, hain zuzen. Argazkilaritzaren historia berrikusten badugu, irudi horrek antzeko beste batzuetara eraman gaitzake, egoera ezberdin eta ezagunetara. 1945ean, Alfred Eisenstaedtek argazki bat egin zuen Bigarren Mundu Gerraren amaieran New Yorkeko Time Squaren: marinel bat eta erizain bat ageri dira besarkatuta elkarri musu ematen. Antzekoa da Robert Doisneau argazkilaria, 1950ean "Life" aldizkariaren enkarguz Paris inguruan egindakoa, eta, antza, argazkigintzaren historiako irudirik erreproduzituena. Hiru irudi ezberdin dira, gai bera dutenak: musu bat, besarkada bat. Hiru istorio, hiru egoera. Hiru momentutan hiru argazkilarik egindako hiru irudi, oihartzun ezberdina izan dutenak.



# ÓPERA BILBAO

TEMPORADA  
2018/19



Bilboko opera guztion esku  
la ópera de Bilbao al alcance de todos

CONECTAdos  
contigo

CONECTAdos  
CON LA ÓPERA

67ª TEMPORADA  
PALACIO EUSKALDUNA

**LA BOHÉME**  
GIACOMO PUCCINI  
20, 23, 26, 27 (OB\*) y 29  
OCTUBRE 2018  
(CON FUNCIÓN OPERA BERRI)



Fundación BBVA

**FIDELIO**  
L. V. BEETHOVEN  
24\*, 27 y 30 NOVIEMBRE,  
y 3 DICIEMBRE  
\*ABAO 1000 FUNCIONES

Fundación BBVA

**I LOMBARDI**  
ALLA PRIMA CROCIATA  
GIUSEPPE VERDI  
19, 22, 25 y 28  
ENERO 2019

**SEMIRAMIDE**  
GIOACHINO ROSSINI  
16, 19, 22 y 25  
FEBRERO 2019

**EL CONCIERTO  
DE ABAO**  
"DELIRIO"  
JESSICA PRATT  
20 MARZO 2019

Fundación BBVA

**LES PÊCHEURS  
DE PERLES**  
GEORGES BIZET  
18, 21, 24 y 27  
MAYO 2019

## ABAO TXIKI TEATRO ARRIAGA

**EL BOSQUE  
DE GRIMM**  
MAURICE RAVEL  
3 y 4 NOVIEMBRE 2018

**CAPERUCITA  
BLANCA**  
CARLOS IMAZ  
3, 4 y 5 ENERO 2019

**EL TRAJE NUEVO  
DEL EMPERADOR**  
IÑIGO CASALÍ  
23 y 24 FEBRERO 2019

**EL CIENTIFICO  
DE LA ÓPERA**  
VERDI, ROSSINI, OFFENBACH  
18 y 19 MAYO 2019

## SALA BBK

**IL FINTO SORDO**  
MANUEL GARCÍA  
22 MAYO 2019

LAGUNTZAILEA

**GARA**

PATROCINADOR PRINCIPAL / BABESLE NAGUSIA

Fundación BBVA

PATROCINADOR / BABESLEA

**EL CORREO**  
PARTE DE TI ZURE BAITAN

MECENAS / MEZENAK



COLABORADORES / LAGUNTZAILEAK



ASOCIADOS / BAZKIDEAK



INFORMACIÓN Y VENTA DE ENTRADAS [www.abao.org](http://www.abao.org) • [abao@abao.org](mailto:abao@abao.org) • Tel. 944 355 100

